

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Otsailak 16, 52. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

ATB zure etxean



1990 AURREKONTUAK

A r r a s a t e

K i r o l a k

Kontzezlño 8, ARRASATE. Tfnoa: 76 46 12



ARRASATE TELEBISTA

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen

Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri behar-ko dlozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzaillearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontsellua: Jose Felix Diaz de

Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de

Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele

Zuazubiskar, Pabxi Montero,

Juan Martin Elexpuru, Eukeri

Olabarrieta, Aranba Lizaso, Gerardo

Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus

Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo

Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,

Joseba Vallés, Karmelo Uribarren,

Iñaki Aranburu, Hankamotz,

Maiete Toledo, Atalataikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta eriztzen erantzunkizunik.



Autodeterminazioa, Euskaria eta etorkizuna

Lerro hauek argitaratu orduko eta gauzak egitaratu bezala irten badira, Eusko Legebiltzarrean autodeterminazioari buruzko saioa amaituta izango da. Gaurko hau idazten ari naizela, ez dut eztabaidaren ondorioa ezagutzen. Baina berdin zait. Adierazi nahi dudanerako ez dut uste Legebiltzarreko erabakiak ezertan alda dezakeenik nire artikuluaeren mezua.

Badira lau urte, Euskal Herriaren burujabetasunaren eskubidea suspertzeko Euskaria sortu zela. Beraz, lehenengoz eta behin, hauxe esan nezake: euskal autodeterminazioaren alde bizitzen ari garen mugimendua ez da —ohizko oztopatzaileek dioten bezala— katalandarren edo ekialdeko haizeen eraginpean jaio. Ez jaunak, ez! Ez da egun batetik bestera inprobisatu den erreibindikazioa. 1986ko hasieran ipini zen martxan, zenbait hilabete geroago Euskaria deituko genuen elkarte. Eta bere hastapenetatik Elkartek garbi izan zuen helburua: euskal autodeterminazioaren aldeko kontzientzia berpiztea.

Lehen unetatik, euskal alderdi politiko guztien kontsentsua bilatu zen. Artean PNVren zatiketa gertatu gabe zela, Eusko Legebiltzarrean ordezkari zuten hiru alderdi abertzaleei konpromezu estuagoa eskatu zitzairen, autodeterminazioaren aldeko ez-legezko adierazpen bat

aurkez zezaten proposatuz. Proposamena, bakea eta demokraziaren goren-baloreetatik egiten zen, abertzaleen balizko esfortzu amankomunean oinarriturik. Badira, beraz, lau urte hasiera hartatik. Eta, aitor dezaket, lau urte hauetan ez da makineria inoiz gelditu. Lana ez da erraza izan. Alderdi politikoen gorabeherak kontutan izanik, zuhurtasun osoz jokatu behar izan da Euskariatik, abertzale guztien ikuspuntu eta planteamendu demokratikoak plataforma bateratuan azaldu ahal izateko. Horixe besterik ez zen elkartearen asmoa.

Ez-legezko adierazpena Legebiltzarrean dago. Eta orain, zer? Lehendabizi, zera oroitu beharko genuke: ez dugula eskailera luzearen lehen maila gehiagorik gauditu; eta ahaleginetan jarraitu beharko dugula, oinak lurrean ongi tinkotuta eta sentimenduzko boluntarismo merketik urrun. Euskal nazio kontzientzia ez da, besterik gabe, parlamentu-ezohizko saio batetik zehar landua iritertzen; ordea, abertzaleen elkar-dinamikan marraztu beharko da aurrerantzeko prozesua. Egiatzko asmo aurrerakoi baten ingurura bilduta, Euskal Herriaren etorkizun hobe batez has gintezke euskaldunok amets egiten. Europa garaia eta europar xedean sinesten dugula ahaztu gabe.

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

M A ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

MARTINEZ aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

Karta irekia

Guraso, lagun, lagunak ez zaretenok eta bereziki gidariok:

Gipuzkoako Etorbidetik pasatzean trafikozko senale asko ikusten dituzue, baina, kasurik egiten al diezue?

Egia esateko, ez. Baina kontutan izan stripu gehienak hemen izan direla, arauak ez errespetatzeagatik.

Joan zen urtean bi agure hil eta zauritu asko egon ziren. Hauen barruan nire gelako bat grabe zauritua suertatu zena. Hau aipatzen dut gelakoei min eta susto izugarria eman zigulako.

Gaur goizean, urruti joan gabe, taldeko lan bat egiten ari ginela, bidea gurutatu beharra izan dugu. Semaforoa berde jartzeko botoia zapaldu dugu. Kotreentzako gorri jarri denean, gu pasatze-erara gindoazen momentuan, kotxe batek, kasurik egin gabe, aurrera jo du. Ongi iruditzen al zaizue?

Badakigu, guk ere, oinezkook, sarritan jokabide eskasak izaten ditugula eta saiatu beharko dugu hobetzen.

Ez da denbora asko falta saihesbidea bukatzeko. Gero, han, azkarrago ibiliko zarete, baina orain, mesedez, jasan ezazue pixkat eta gu, oinezkoak, errespeta gaitzazue.

*San Antolin ikastolako 6. mailako ikasleak.
18 sinadura*

AEKk Arrasate Pressi

Arrasate Press-eko 48. zenbakian "Euskararen egoera Arrasaten" izenburupean agertzen zen artikulua harrিতa utzi gintuela esateko bidaltzen dizuegu idatzi hau. Egia esan gure harridura ez zen artikularen edukiagatik edo bertan ematen ziren eritziengatik sortu, baizik eta horrelako mahainguru batetan AEK ez egotea lotsagarria iruditzen zaigulako, eta lotsagarriagoa konbidatuak ere ez izatea.

Gure ustez, kontutan harturik AEKk helduen euskalduntze-alfabetatze lanean duen urtetako esperientzia bai Arrasaten, eta baita edozein herriko bazterretan ere, mahainguru horretan alfabetatze euskalduntze koordinakundearen presentzia ezinbestekoa zen.

Arrasaten lana egiten dugunez (eta ez da ahaztu behar, helduen irakaskuntzan)

zertxobait ezagutzen dugu bertako egoera, bertako ikasleak ditugu eta.

Badakigu egun AEKk ez duela oraindik lehen zuen indarririk Arrasaten, hala ere ukazina da presentzia baduela aztertu behar zen gaiaren inguruan, eta ez gonbidatzea nolabait baztertze jarrera gisa hartu behar dela. AEKri herrian benetan duen protagonismoa eman behar zaio. Kasu hartan, nahita edo nahigabe, AEK existitu ez balitz bezala jokatu zen.

Bukatzeko esan behar dugu mahainguru hartan bildu zenituztenak ondo zeudela, baina AEKk gutxienez han egoteko gonbidapena jaso behar zuela.

Arrasateko AEK

Pikuri erantzuna

Arrasate Pressen zure karta irakurri ondoren, Haratuzte kartel-lehiaketari buruz egunkarian zekarren albistea, ez duzula ondo ulertu iruditzen zait.

Epaimahaiko partaidea izan nintzenez, zenbait puntu argitzeko beharrean aurkitzen naiz.

Bost pertsona osatzen genuen Epai-mahai hori, baina bat ez zelako azaldu, laura mugatuta gelditu ginen.

Gure lehendabiziko ekintza, lehiaketako oinarriak bete ez zituztenak baztertzea izan zen. Gero, gure eritzi, onenak edo eta politenak aukeratu genituen. Horietatik beste aukeraketa bat egin zen kartelen lana, koloreak...eta abar kontuan harturik. Horrela, bi kartel gelditu ziren azkenean, baina saritua zein izan behar zer erabakitzeke ez ginen ados jartzten.

Luzero eztabaidatu ondoren eta adostasun hori ezinezkoa zela ikusirik, txanpona airera bota genuen.

Konturatuko zinen, honez gero, aukeraketa ez zela bi minututan egin, ez eta bingo edo beste jolas mota bat bezala ere.

Ni ere, askotan izan naiz kartel egi-lea eta lehiaketetan partaidea eta ondo dakit zenbat kostatzen den egitea.

Gure aukeratze-sistema ez zen izango, behar bada, guztiz egokiena, baina partaideak burla edo txorimalotzat hartu ditugula pentsatzea ezinezkoa zait onartzea.

Bermi

Eibarri Urkuluko ura ematea ondo ikusten duzu?



Laura Rubio
(langilea)

Bai, zergatik ez. Guk nahikoa ur dugu eta ez duenari ematea ondo ikusten dut.



Fernando Aguriondo
(langilea)

Bai, guk ura dugunez, laguntzea ondo ikusten dut.



Miren Bengoa
(etxeakoandrea)

Laguntzea beti ondo dago, bata besteari ez badiogu laguntzen...



Jose Antonio Zubillaga
(langilea)

Ura egonez gero normala ikusten dut ura ematea, beste gauza bat lizateke urik izango ez bagenu, jakina.

LENIZ.

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izplak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebiosa, Adeslas
(Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko,
Intsektu, narraztiak akabatzeke,
arratolak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88

Arrasate

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubilagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAJOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuaren egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Daba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
--	----------

16 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Prison". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Regreso al futuro II". 10,30etan.
- Rock Jaialdia: Bergaran, herriko hiru presoren omenez. "Angiolillo", "Spock" eta "Pikutara". Pol-Polen gaueko 10,30etan.
- Afaria. Bergaran Herriko hiru presoren omenez. Pol-Polen gaueko 9,30etan.
- Txotxongilo emanaldia "Taun-Taun" taldeak "Lam eta lorea" obra aurkeztuko du. 10etan Orfeoiko lokalean.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

17 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro II". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Regreso al futuro" 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Bideo-emanaldia: "Gremlins". Monterronen arratsaldeko 4 eta 6etan. Sarrera 50 pta.
- Antzerkia: Duodeno antzerki taldeak "Pasen y mueran" antzeslana eskainiko du, Amaia antzokian gaueko 10,30etan.
- Jaialdi-omenaldia: Bergaran herriko hiru presoren omenez antolatutako ekintzen barne. Tritikilariak, Ripi eta Igor; Bertsolariak, Sebastian Iizaso eta Jon Lopategi; Abeslariak, Erramun Martinikorena eta Txanbela taldea. Herriko pilotalekuan gaueko 10,30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

18 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro II". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Regreso al futuro II". 5, 7,30 eta 10,15etan.

- Antzerkia: Maite Agirre kolektiboak "Pelotari" obra eskainiko du. Bergarako Frontoian 8etan
- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

19 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro II". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Regreso al futuro II". 7,30etan.
- Hitzaldia: Txema Matanzas abokatuak, Jose Artetxe sendagileak, Amnistiaren Aldeko Batzordeko Komisio Nazionaleko Juan M^a Olanok eta preso ohi batek hitz egingo dute. Bergarako Udaletxean arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

20 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Regreso al futuro II". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: Eukeni Olabarrieta sendagileak "Elikadura gertakizun soziala" gaiaren inguruan hitz egingo du. Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan, arratsaldeko 4,30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

21 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina

22 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: "Calma total". 7 eta 9,30etan.
- Dantzaldia: Abaroa elkartearen arratsaldeko 6etan.
- Zine-klub: "Autobiografía de una princesa". Amaia antzokian, gaueko 8,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

IKASTAROAK

- **Page Maker II.** Otsailaren 26tik martxoaren 2 arte. Izen emateak Arrasateko IMIn.
- **Txalaparta Ikastaroa.** Gazte Zerbitzuak antolatuta, otsailaren 24etik maiatzaren 5era bitartean, larunbatere. Bi trandatan banatua, 9etatik 11etara eta 11etatik 1etara.
- **Osasun eta kontsumo ikastaroa,** famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak antolatuta. Izen emateak zentruan bertan.
- **Etxe-apainketa,** otsailaren 22an eta martxoaren 1ean. Emalea, Rosarito Garitano, apaintzailea, AED elkarteak antolatuta. Doan. Informazio gehiago AED elkartearen. Tfnoa: 79 54 46

ERAKUSKETAK

- Bergarako POL-POL mendizale elkartearen aretoan hilaren 13tik 19ra bitartean **"Presoek egindako lanen"** erakusketa.

BIDEO-EMANALDIA

Gremlins

Tokia: Monterron kultur etxea

Eguna: otsailaren 17

Ordua: arratsaldeko 4etan eta 6etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



**GARIBAI ETXEA.
UDALAK 6 MILIOIKO
GASTUAZ EGINDAKO OBRA.**

**ORAINDIK INAUGURATU
BARIK ETA DAGOENeko
PINTADAZ ZIKINDUTA.**

**ARRASATEKO EA EZ DAGO
ADOS.
ETA ZU?**



“Orduan talde batzu baziren, indar handia erakusten zutenak; baina RIP, Cicatriz eta abarrak jeisten joan dira. Hertzainak eta Barricadak ez dute lehenengoko gai gogorrik egiten, eta orain ikusten da asko aldatu dutela.

Baina presoak hor daude oraindik, eta joera gauza leunagoak egitea bada ere, geuk musika eta hitz gogorrak esango ditugu”.

(Xementerio, musika talde aramaixoarrak, “Argia” aldizkarian)

“Pasa den astean, lau jokalaria bialdu genituen Euskadiko selekzio seniorrarekin entrenatzera; baina selekzioa ‘mafia’ ikaragarria da, Donostialdeko taldeen ‘mafia’. Dirulaguntzak egoten dira jokalariai uzten dituzten taldeentzat; ondorioz, hango eki-poeak euren artean erabakitzen dute. Inguruko taldeez, noski, ez dira inoiz gogoratzen. Horrela, xoxa guztiak beraiantzat gelgitzen direlako”.

) (Pello Hiriart, Arrasate Kirolak Rugby Taldeko entrenatzaileak)

“Hogeimarraren bat aintzindari, politikari eta enpresari sobietarrek azterlan orokor bat burutu dute Euskal Herrian. Euskal Herriko langileen kope-ratibek izandako arrakastak, Espainia estatutaren iparraldean Arrasate inguruan 20.000 lanposturekin, nola balio dezakeen sobietar industria zuzentzeko, industri erreformaren aurrean.

Arazoa ez da Arrasatek arrakasta duen ala ez ikustea (benetan arraroa den adibidea estatuturik gabeko sozializazioan), baizik eta ideia hauek komunitatetik kanpo aplikatu daitezkeen”.

(“The Guardian” egunkari britainiarrean)

Zergatik jartzen dira pisu gutxi errentan eta horren garesti?

Lehenik legislazioa zaharkitua eta gaur eguneko beharrak betetzen ez dituen dela esango nuke. Arrendamenduak arautzen zituen 1964eko legeak “*luzapen eskubidea*” arautzen zuen, hau da, inkilinoek nahi izanez gero kontratua amaitu ondoren, alokairua luza zitekeen aipatutako eskubidea erabiliz.

Aintzinako kontratu ugari, bestalde, ez dago idatziz jasota eta idatziz egonda ere, ez dute alokairuaren berrikustapena arautzen kasu askotan. Hau dela eta, etxajaun askok oso errenta txikiak jasotzen du beren jabegoaren truke. Arrazoi hauek direla medio, gizarteko zenbait sektorek ez du bere jabegoa errentan utzi nahi.

1985eko Boyer-en dekretuak, “*luzapen eskubidea*” kendu zuen. Salneurria eta errentaren iraupena, ondorioz, kontratuaren bidez arautuko da. Legedi berri honen bidez, jabeek ez dute beren jabegoa berreskuratzeko arazorik, baina 1985. urtea baino lehenagoko alokairuei ez zaie irtenbiderik ematen.

Zenbait arazo planteatzen da. Bidezkoa al da beren jabegoak utzi zituztenek oso errenta baxuak jasotzen segitzea beren jabegoaren truke? Bidezkoa al da alokairuaren salneurria merkatu librean jartzea?

Ezin ahaztu, gobernuak, etxebizitza beharrak erosketan bidez konpontzeko politika izan dutela eta dutela.

Nire eritziz, etxebizitza arloan ematen diren gehiegikeriak arautuko dituen lege berria aldarrikatzeaz aparte, instituzioek, Udalak barne, alokairuan emango diren etxeen eraikuntza promozionatu behar dute, gizartean ekonomia ahulena duten pertsonen etxebizitza-beharrak asetzeko.

*Jon Usabiaga
Abokatua*



**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxa: 798411 ARRASATE

AURRERATZEKO

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

"Pasen y Mueran"

Larunbatean, otsailak 17, Duodeno antzerki taldeak "Pasen y mueran" saioa eskainiko du Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.

Duodeno antzerki taldea 1988 urte hasieran sortu zen. Jende gaztez osatutako taldea dugu, eta helburutzat jende gazteari eskainitako lanak antzestea dute.

"Pasen y mueran" euren bigarren obra da (lehenengoa "Voyeur"). Honako honetan, istorioa auzokide batzuen artean gertatzen da: atarian, eskaileratan, etxebizitzatan, etab. Kontua da antzespeneko protagonista den On Jauma Ferrusola medikuforensea auzokide horiengana helitzen dela, heriotza bat ziurtarazteko.



Obra guztia umore beltzez josia. Sarrera 500 pta.koa izango da, eta Gazte txartelarekin 300.

Antzerkia Bergaran

Igandean, arratsaldeko 8etan, "Maite Agirre" kolektiboak "Pelotari" obraren antzespina eskainiko du, Bergarako frontoian.

"Pelotari" ikuskizuna, Jorge Oteizaren eskultura batetan inspiratutako ziklo tetralogikoaren amaiera da. Oteizaren eskulturak pilotalekuan eduki zuen bere oinarria; eta antzespina honetan pilotalekura bueltatzen gara hain zuzen.

"Pelotari"k, frontis horren aurrea iristen garen gutako edozeinez hitzegiten du; gure galdu-irabaziko karrasiez, pelotaren atzeko gure dantzaz, jokatzeko orduan izan ohi dugun esaltazioaz, etab.



Berrikari ongi-etorria


Astearte gauean heldu zen Arrasatera Beronika Garai, hilabetez Carabancheleko espetxean egon eta gero.

Hasieran ongi-etorria 9etarako prestatu bazen ere, Beronika 10,30ak inguruan heldu zen Portaloira. Jende ugari bildu zen haren zain, eta ikusten duzuen bezala, muxuak eta lorak ez zitzaizkion falta izan.

Portaloitik Arrano Elkartera hurbildu zen koadrila galanta, eta bertan afari ederra dastatu ere.

Bainugela-erakusketa

I RE KI B E R R I A !!!



ibarluzea

Olarte 19-21, Tfnoa: 79 22 49 ARRASATE

Txandaka


**Monterron
astebetetz itxi**

Otsailaren hemeretziatik hogei-talaura, hau da, datorren astean, Monterron Jauregia itxi egingo da. Konponketa eta apainketa lanak egiten ari dira bertan; hori dela eta, ezingo da barrura inor sartu.

Atsedenaldi hau, segurtasun neurri berriak hartzeko ere erabili nahi da.

Itxura denez, hainbat jendek liburuak lapurtzeko ohitura okerra erakutsi du behin eta berriz; ondorioz, datorren astean liburu bakoitzari metalezko xafra txiki bat jarriko diote. Horrela, sarrerako detektagailuak segituan abisatuko du norbaitek liburuak izkutuan atera nahiko balitu.

Badakizue beraz: datorren astean Monterron itxita. Otsailaren 24ean zabalduko da publikora.



Sarrerako detektagailu berria

Euskaldunak zertarako izan?

Baina zertako izan euskaldunak, egunero Madrilgo, Parisko edo New Yorkeko kontu moderno ergel berberak errepikatzen aritzeko?

Zertako euskal telebista? Munduko informazio eta programa txoro berberak euskaraz eta okerrago imitatzen? Zertako euskal irrati? orduero Radio Nazionaleko notizi negargarri berberak euskaraz entzuten aritzeko? Zertako bizi euskaraz? Mundu guzian egunero ahotan dabilzan txorakeria berberak errepikatzen, eta errepikatzea aski ez, moldakaitzago eta aspergariago errepikatzen besterik ez dugu ari behar? Eh, zertako izan euskaldun?

Mundua iadanik herri ttikia zela esaka, *ddemokratta moddernoak* nagusitu ziren arte geure zilborrari begira bizi izan omen ginen, eta jakina, munduan egunero zer gertatzen zen jakin gabe omen ginen euskaldun izan, ezin omen genuen gure herririk salbatu mendebaldeko progresoaren sari komertzialetara egokitu gabe, eta itxura denez, gero eta fede haundiagoa jartzen dugu ideia mixerable zikin horretan. Nik ordea, anormala izaki, kontradizio izugarria ikusten dut horretan. Urte luzetan geure zilborrari begira bizi izan bagara ere, geure zilborra ikusi, aztertu eta indartu gabe hartu genuen progresoaren zilbor demokratikoa nahitaezko lagun uste-kotzat, eta orain badirudi etsairik haundiena bera dugula inork ez duela aitortu nahi. Bost ajola guri kontraesana, hipokresiak eta zinismoak erosota-



Patziku Perurena (*)

sun eta diru gehiago ematen duen bitartean.

Orain arte ezinezko zela uste izaten nuen *euskaldun apatrida* izatea, izan ere, bi hitz horiek elkar ukatzen zutelako uste osoa izaten bait nuen; baina ez, alderantziz gertatzen da gaurregun; *euskal apatridek* bakarrik

lukete zentzua gurean. Agi denez ez dugu ia herririk, ez dugu lurrik, ez dugu geure buruari non eutsirik, aidean bizi gara, mendebaldeko haizea nora, gu ere hara; baina hori bai, euskaraz egiten dugu hegan. Egunero zapaltzen dugun lurrik ez dugu sumatzen; egunero ukitzen ditugun izaki gauzatiek ez digute deus esaten; lur mutu baten gainean bizi gara. Mendebaldeko haize *ddemokrattiko* absolutistak aidean standarizatuak uzten dituen hitz, kontzeptu eta zeinu abstraktu komertzial ergelak egunero geureganatuaz, hegan bizi gara; baina hori bai, sekulan baino euskaldunago. Lur mutu triste baten gainean hegan garabiltzaten robot mixerableak gara; baina, hori bai, euskaldunak gara, euskaraz hitz egiten bait dugu.

Inorantea eta atrasatua izanen naiz behar bada, baina, lurrean bizi diren azken euskaldunetako naizela iduritzen zait askotan, izan ere, egunero zapaltzen dudana lurra hitzegin egiten bait dit oraindik, eta enetzako ez da hitz egiten dizun lurrean bizi-tzea baino gauza unibertsalagorik, modernoagorik eta kultoagorik.

(*) *Idazlea*

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda


Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA



Xabier Bengoa



Jokin Zaitegi gela

Industri museoa Arrasaten?

Urte honen barruan has daiteke eraikuntza

Oraindik ere proposamena besterik ez den arren, agian aurten bertan ekin daitezke Arrasaten industri museoa eraikitzeko lanak.

Ideiaaren bultzatzailea Xabier Bengoa dugu, Udaleko Kultura Bartzordeburua.

Badirudi Arrasateko Udalak parte hartu nahi duela egitasmoan, eta horretarako, ostiralean 1990erako aurrekontuak onartzeko egingo den plenoan, industri museoari dirulaguntza eskaintzea azter daiteke.

Dena den, hasieran behintzat laguntza hori guztiz sinbolikoa izango da: pezeta batekoa, hain zuzen ere. Esaerak dioen bezala, "orain oraingoak, eta gero gerokoak".

Xabier Bengoaren hitzetan, industri museoak helburu bat bete nahiko luke: hainbat urtetan zehar gure herriari horren ospe handia

eman dion serrailgintza nolabait berreskuratzea, hau da, galtzen ez uztea.

Horretaz gain, beste hainbat sail ere kontutan izango dira museoa martxan jartzen denean. Nolabait esateko, Lezetxikiko aizkoratik hasi, Labeko kobako perkutoretik pasatu, eta gaur egungo goi mailako teknologiek ere presentzia izango lukete bertan.

Industri museoan ere Zerrajera enpresak hasieratik egin dituen modelu ezberdinak bilduko lirake; hau da, hainbat eta hainbat urtetan zehar kaleratutako serrail modelu ezberdinak.

Hasieran behintzat, museoa Monterroneko Jauregian kokatzeko asmoa dute, horretarako Jokin Zaitegiren omenez orain gutxi zabalduko liburu-gela erabiliz.

Usteak uste...

XIX mendean Carey irudiak zelula fotoelektrikoren bidez igor zitezkeela konturatu zenetik, urte batzuk igaro dira.

Medio berriaren garrantziaz ohartuta, berehala hasi ziren han hemenka telebistak agertzen. Estatu Batuetan 1933an. Espainian 1956an. Euskal Telebista 1982an. 1990ean, S.Benignoren egunean, asteartea eta hamahiru, Arrasateri tokatu zaio txanda. ATB, Arrasate Telebista frogatan bada ere jaio da. Zorionak, Arrasate.

Unibertsitatean genbiltzala, inoiz ahaztuko ez dudana eguna etorri zait gogora. Orduan Donostia eta Loiolako Herri Irratiek 24 orduak euskaraz antolatuta zuten. Egun historikoa izan zen guretzat. Biharamonean betiko mundu erdaldunduan sartu ginen, baina aurrerantzean ezer ez zen berdina izan, egun hark zerbait aldatu zuen eta gure baitan. Egun hartako emozioak etzuli zaizkit egun hauetan eta orduan Jose Ramon Belokiri entzundako esaldi ederra gogoratu dut: *Ezina, ekinez, egina*. Ezina zirudiena ekinaren ekinez, eta herritar askoren laguntzaz, egia bihurtu dugu. Zorionak berriro, Arrasate!.

Telebistaz edo barik, bizitzak aurrera darrai eta gaur aurtengo aurrekontuak onartuko dira. Hemen ere Arrasatek jauzi ederra eman du. Orain dela hamar urteko presupuestua 200 milioiokoa zen. Gaur onartuko dena 2.000tik gorakoa. Ale honetan tranponak zertan gastatuko ditugu irakurtzeko aukera izando duzue.

Joxe Aranzabal

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON

LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Merkatua ixtea birkontsideratu

Makina bat jende aurrerabakiaren aurka

Bi hilabete baino ez dira igaro Udalak Azoka Plaza ixteko aurrerabakia hartu zuenetik, eta dagoeneko makinatxo bat ahots entzun da inguruan erabaki horren aurka.

IKEI enpresak egindako azterketan oinarritu ziren Udaleko zinegotziak merkatua 1991eko abenduaren azken egunean itxi beharko zela erabakitzeke, orduan esan bezala, erabaki sendoa ez zen arren.

Arrazoi hauek erabili ziren: azokak gaur egun duen bidegarritasun eskasa, Arrasatek alor horretan duen eskaintza zabala, eta merkatuak

duen errentagarritasun txikia.

Alternatiba gisa Roneon egingo diren etxeetako plaza edota Biteriko aparkalekua aipatu ziren.

Bi hilabete hauetan, oster, jende askok plazaratu du desadostasuna erabakiarekin.; bai etxeoandreek, eta baita bertako saltzaileek ere. Hori dela eta, badirudi Udala prest legokeela arazoa beste modu batean planteatzeko. Baten batek kontzesioak laupabost urtez luza daitezkeela ere aipatu du, baina ikusi egin behar. Badago astia berba egiteko, eta asmoak hortik doazela dirudi.

Ikastolako Batzarra

Otsailaren 22an, osteguna, Santa Agedako andreen ospitaleko batzar aretoan egingo da San Frantzisko Xabier Ikastolako Batzar Nagusi Arrunta. Arratsaldeko 6etan

Batzarrean, honako gai hauek jorratuko dituzte: Akta onartzeko akordioa, 1988-89 ikasturteko memoria eta Txosten ekonomikoaren onarpena, 89-90 ikasturterako Gestio-plana, Euskal Eskola Publikoaren legearen bidea aztertu, eta bukatzeko, galdera-erantzunen txanda zabalduko da.

Bi mozio

Biharko plenoan aurkeztuko direnak; HBk soldaduskaren aurka, eta EKI eta Eguzkik Garofiako zentral nuklearraren kontra.

Jaiotzak

Zenitagoia Lejarazu, *Unai*. Urtarrilaren 30ean
Lopez Ruiz, *Luisa Marina*. Otsailaren 1ean
Perez Bermudez, *Yara*. 5ean
Guruzeta Altube, *Aitor*. 7an
Casquete Jimenez, *David*. 7an
Ugalde Etxagibel, *Nerea*. 8an
Azpiazu Egaña, *Leire*. 8an
Etxebarria Errasti, *Xabier*. 8an
Gil Mugarza, *Ekaitz*. 8an
Mugika Irazabal, *Garazi*. 9an
Gimbert Sanchez, *Maialen*. 10ean

Ezkontzak

Juan Ignacio Dorronsoro Odría & Miren Alintzane Garate Pagaldal. Otsailaren 10ean, zibilez.
Raquel Diaz Larrakoetxea & Javier Ortiz de Landaluze Paunero. Otsailaren 10ean, elizaz.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otorola doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Caplsa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Anbulategian, Erradiologi saila itxi

Osakidetzak segurua dela dio. Langileak ez dira fiatzen

Jakina da plaka bat egiten dugunean, X izpiek gorputzarentzat kaltegarri izan daitezkeen erradiazio karga ematen digutela. Horregatik ahalik eta gutxien eta behar denean bakarrik egiten ditugu plakak. Arrasateko ambulategian, geldirik dago erradiologia saila, lehen atentzioko langileek, joan den astean izandako aberia medio, Donostiako Lan-ordetzkaritzaren aurrean inspektzio eskaera luzatu zutenetik.

Arazoa pasa zen asteartean hasi zen, Anbulategiko erradiologia tresneria aberiatu zenean. Asteazkenean teknikoak etorri zirenean, horietako batek gela hartako zoruak seguruenik berunezko babesik (X izpien erradiaziotik babesteko beharrezko materiala) ez zuela esan zuen. Momentu horretan, langileek (euretariko hiru haurdun) uko egin zioten lanari, hori konpondu arte.

Mertxe Ruiz de Uzkiario zuzendari gasteiztarraren hitzetan, ostegunean bertan Osakidetzaren Babes Erradiologikoa segurtatzeko taldea +etorri zen, eta lokala goitik behera sakonki aztertu; badaezpada, baldintza hipotetiko txarretan ere egin zuten azterketa, zoruari zulo bat egin, eta beruna aurkitu zuten.



Asteartean ailegatu zen emaitzak, Erradiologi gela guztiz segurua dela dio.

Lehen atentzioko zerbitzuko langileek, berriz, ez dituzte gauzak horrela ikusten, eta ikusketa eskaera luzatu diote Donostiako Lan-ordetzkaritzari. Euren ustez gela hori ez dago baldintzetan, eta behar bezala egon arte, ez dira horra sartuko.

Egia esan, iraila-urria bitartean, Osakidetzaren Babes Erradiologikoko taldeak beste azterketa bat egin zuten gela horretan, eta txostena ida-

tzi. Txosten horretan erradiologia zerbitzuaren "zenbait arazoz" hitzegin zen. Zuzendariak eta administrariak ezagutzen zituzten, eta hauen hitzetan, baita langileek ere. Dena den, orduan ez zen neuririk hartu, aurrekontuetan dirurik ez zegoelako. Honi erantzunez, zenbait langilek diruaren erabilpen kaskarra salatu du (gogoratu bestela, abenduan, giza ekintzetarako gastatu barik zeuden milioi erdi pezeta Zelai-Zabal jatetxean sekulako afaria eginge teko erabili zirela).

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97

Emakume zerbitzua

Udalaren Osasun eta Ongizate Batzordea kezkatuta dago emakumeek bizi duten egoeraz, eta hiru zerbitzu sortzeko asmoa azaldu du.

Batetik, banatu behar diren emazteentzako aholkularitza juridikoa sortu, non esplikatuko zaien zein baldintza ekonomikotan geldituko diren, zenbat kostatuko zaien, etab.

Bestetik, arazotan dauden ama ezkongabeak jasotzeko lekua behar izanez gero, profesio erositako etxebizitza antolatu.

Azkenik, etxean tratu txarrak jasoten dituzten emakumeei ere babeslekua eman nahi zaie.

Orain artean Diputazioaren bidez egin izan dira horrelako ekimenak



Arrasateren kasuan ere horrelako zerbitzu nahiko litzateke, eta horretarako Donostian izan zen astelehenan Elena Kortabarria, Arrasateko Udal gizarte-laguntzailea.

Osasuna eta kontsumoa

Otsailaren 20an hasi eta maiatzaren 29a arte, Osasun eta Kontsumo ikastaroa emango da Santa Teresako Famili eta Gizarte Heziketarako zentruan, asteartero 4,30etatik 6etara. Egitasmoaren barruan, hainbat hitzaldi eta irteera antolatuko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 79-04-59 telefonoa (arratsaldez bakarrik).

Zeramika ikastaroa

Leintz Zeramika Eskolak antolatuta, lau hilabeteko epea izango duen ikastaroa hasi berria da. Astean hiru klase emango dira: astelehen, astearte eta ostegunez.

Klaseak bi txandatan banatuta egongo dira, lehenengoa 3etatik 5etara, eta bigarrena 7etatik 9etara.

Izena emateko Leintz Zeramika Eskolara jo, tren geltoki zaharrera.



Metal-industriaren greba

Sindikatuaren arauera, metal-industriarekin zerikusirik duten Arrasateko enpresen % 90ak erantzun zion pasa den ostiraleko greba deiarri. Horrela, kooperatiben salbuespenarekin, Gelma izan zen irten ez zen bakarra, enpresa handien artean. Eguerdiko manifestaldira, ostera, jende gutxi hurreratu zela esan behar.

Greba, aurtengo Metal-Komenioaren negoziazioetan eman den geldidunetik atera nahian egin zen.

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz 15,
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN
HORNIDURA OSOA
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23

LARRINGAN

auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

1990eko aurrekontuak

2.119 milioiko gastua onartuko

Ostiralean, Udalak Monterronen egingo duen plenoan onar daiteke 1990eko aurrekontuei buruz prestatu den zirriborroa.

Zirriborro hori bi fasetan landu da. Hasieran Xabier Zubizarreta Alkatea, Xabier Lasaga Hazienda Batzordeburua, Ifaki Balzategi Diru-artekaria eta Jose Mari Eraña Idazkaria bildu ziren. Euren prestatu zuten Lehenengo txostena.

Bigarren fasean, oster, alderdi bakoitzeko ordezkariak bildu ziren. Asmoa, zirriborroaren inguruan ahalik eta adostasunik zabalena lortzea.

Dena den, ez zuten halakorik lortu. Dirudienez, HB, EA eta EAJ alderdien botuekin aterako da aurrera aurtengo egitasmoa, PSOE eta EE kanpoan geldituko direlarik.

Enmendakinak

Enmendakinak, noski, bi alderdi hauen eskutik helduko dira:

EEK 12 aurkeztuko ditu. Euren ustez, Ferialeko frontoian egin nahi den gastua handiegia da (batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiak uko egin ziolako diru-laguntzari); frontoia, gainera, ez da premiazko beharra, eta bai ordea Hezkuntza, zerbitzu azpiegitura, etab. bezalako arloak.



PSOEk asteartean emandako prentsaurrekoa

PSOEek, bere aldetik, prentsaurrekoa eman zuen asteartean Monterronen, aurrekontuen zirriborroarekin desadostasuna erakusteko. Jose Luis Lanak, bere alderdiak 28 enmendakin aurkeztuko dituela iragarri zuen: bat osotasunari, eta gainontzeko 27ak hainbat xehetasunekin lotuta.

Esan behar, halere, PSOEek bost zinegotzi dituela Udalean eta EEK bi. Ondorioz, ez dirudi enmendakin horiek onartuko direnik.

Dirua zertarako

Sailez sail, arrasatearron xoxak horrela erabiliko dira 1990ean: Gobemu organoetan 23 milioi, kultura eta kirolean 505, Hezkuntzan 125, Sanitatean 111,5, Hirigintzan 500, Bame sailean 355,5, Auzoetan 68,5, Zerbitzu ezberdinetan 232, Euskeran 94,5, Gazterian 10,7, eta bukatzeko, Finantza zorretan 93 milioi pta.

Guztira, 2.119 milioi eta piku. Kontuan izan orain hamar urte 200 milioikoa zela.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

VE ECUADOR

Kontzeslño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

Zubizarreta

OSO GAUZAK BEREZIAK

Zerkaosteta 8



Ume pilo polita joan zen Monrerroneko hitzaldi aretora Arrasateko Udalaren Euskara Batzordeak antolatutako bideo-emanaldiaren barruan Spielberggek ekoiztutako "Goonitarrak" filmea ikustera. Larunbat honetan, "Gremlins" pelikula izango dute ikusgai.



Arrasate Musikalekoak ez dira etxean geratzekoak, non-bait. Joan den larunbatean Burlatara joan ziren kontzertu bat eskaintzera. Batzuk bixaua egiten zuten bitartean, guk taldekide alai hauek autobusera bidean harrapatu genituen, soinu eta bestelako musika-tresnaren karreoa.



◀ Nork ez du ezagutzen Luis Iriondo azkoitiarra? Hainbeste urtetan Lan Kide Aurrezkiko harreman publikoen buru izan zena., Lehendakariaren prentsa-burua, eta EITBren zuzendaria izatera ere iritsi zen. Zinemari sartu zen, hainbat filmetan parte hartuz -agian *Company's* ezagunena-. Zeluloidearen munduan Amparo Muñoz ezagutu zuen, artean emakume eder eta liraina, eta gaur zoritxarrak drogaren menpean eta aldizkariaren azaletan jarri duena.



◀ Kintanaren hiztegiak *abiagailu* jartzen du *patinete* hitzaren euskal ordaina. Dena dela, horietako makina bat ari gara ikusten bazterrotan. Eskolorduetatik kanpo hor ikusiko dituzue aldaparik txikienetan barrena, ahaleginak eta bi egin guran. Neskak ez dira gutxiago eta gogor ari dira. Lore del Campo, Maitane Gomez de Segura, Garbiñe Kortabarría eta Naiara Gonzalezek Gabonetan eskuratu zituzten abiagailuak eta oraingoz patxadaz eta umorez hartu dute guzti hau.

BATZOKIA JATETXEA

Eguneroko menua eta karta

Haratuzte egunean afariak emango dugu

Iturriotz 41, Tfnoa: 79 07 90

UDALA ATEAK

Erakusketa,
salmenta eta instalazioa
ATEAK, ERRADAPIAK,
OHOLTZAK

Kale Aldea 13, Tfnoa: 77 04 90
ARRASATE

I R A T I

Ferrerías kalea
Tfnoa: 79 71 80



◀ Urtarrilaren 30an ireki zuten Eskola Politeknikoko kafetegi berria. Astelehentik ostiralera aurkituko duzue zabalik, goizeko 8etatik arratsaldeko 7etara. Plater konbinatuak eta otartekoak emango dira bertan. Hurbiltzen den jendea atenditzeko prest Bernardo, Javi, Begofia eta Karmen.

izen propioak


■ Mari Luz Peña, 28, arrasatearra, Bailarako Lehen Mailako atentzio taldearen zuzendari berria. Mari Luz erizaina da, Iruñeko ospitale probintzian burutu zituen ikasketak eta Ermuako osasun zentruan ari da lanean orain arte.



◀ Ostirala, goizean goiz hasita lanegun gogorra izan genuen *Arrasate Pressen*. Egoitza aldaketa egin genuen, Arrasate pasealekutik Sebero Altube plazako Ospitale Zaharrera. Eskerrak Udaleko *Brigadillak* laguntzera etorri zirela, bestela... Aurrerantzean, zerbaitetarako behar bagaituzue, dei egin 77 05 65 telefonora.

■ Jose Antonio Gay, 19, arrasatearra, Parisen Espainiako selekzioarekin korrituz 4x200 lasterketan. Espainiako errekor-a hautsi zuten. Jose Antonio-k Historia ikasten dihardu Gasteizen. Lasterketa ugari irabazi ditu, 1989an junior mailan Espainiako txapeliduna izan zen eta aurten Euskadiko txapeliduna izan da. Pasa den denboraldian AUKKAK kirolari onenari ematen dion saria irabazi zuten

Orain gutxi zabaldu da Juan Carlos Guerra plazako lean, *Prest* izeneko zentru psikomedikua. Astelehentik ostiralera aurkituko duzue zabalik, arratsaldez, 4etatik 6etara. Bertan, gida-txartel eta arma-baimenetarako osasun ziurtagiriak emango dira. Argazkian, *Presteko* langileak; Elena, Maite eta Nerea. ▶



■ Koldo Rodriguez, 30, azken hamaka urtetan Arrasaten bizi den gazteztarra duzue ATBko *Berriak* saioko aurkezlea. Koldo viatorista da eta San Viator ikastolan lan egiten du. Magisteritza eta Euskal Filologia ikasketak burutu zituen.

ESKOLAKO KAFETEGIA

LEKUA BILATU ETA ZATOZ

Plater konbinatuak 490 pta.

Astelehentik ostiralera 12etatik 3etara.

Otartekoak sololmoa
 tortila 110 pta.
 txorizoa
 saltxitxoia

Zabalik goizeko 8etatik arratsaldeko 7etara
 Sarrera librea denontzat

ARTE LENIZ

koadro eta
 moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE


Hilbera
 kafetegia

Uribarri Etorbidea
 ARRASATE

“Probatzen, probatzen...”

ATB zure etxean, astelehen, asteazken eta ostiraletan

“Zu, eta nolaz hasiko zarete?”, eta antzerako galderak sarri entzun behar izan dituzte ATB-Arrasate Telebistako langile eta arduradunek. Aspalditxo hasi ziren kamarak gure kale, bazter, manifestaldi, Udalaren plenoak, etab. grabatzen, baina seinalerik ez etxeko aparaluetan. Ikusmina areagotu egin zen Arrasate Press ATBri eskainitako orri berria, herri telebistaren berri laburrak eta bertako pertsonalak aurkezten hasi zenean eta, batipat, orain hiru astebete edo, UHFren 23.kanalean Arrasate Telebistaren ajuste-taula agertu zenetik. Aste honetan, azkenik, ajuste taulak bide egin dio oraingoz behin behineko izango den programazioari eta, egia esan, asko eta asko ezustean harrapatu gaitu.



Errealizazio-gelan, tresnak ajustatzen

Hastapenak

Dena maiatz inguruan hasi zen. Arrasate Pressekin herrian izan zuen arrakasta ikusita, AEDren komunikabideetarako sailean euskal irrati eta telebistaren beharraz hasi ziren pentsatzen. Irratiarenak bere bidea egin zuen. Berandu samar izan arren, garaiz aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzari Arrasaten euskal irrati jartzeko eskaera formal. Abuztuaren lehen astean Kultur Sailak egindako frekuentzi banaketan Arrasateri ez zitzaion ezer toka-tu.

Ekainean edo, irrati-frekuentziena erabaki aurretik, telebistaren egitasmoa martxan jarri zen. Oinarri zabalagoa izan behar zuela eritzirik, herrian euskara bultzatzen la-

nean ziharduten erakundeei deitu ondoren, S.Frantzisko Xabier eta S. Viator ikastolak, Umezaintza, AED eta zenbait euskaltzale-Juanito Leibar, Jose Mari Velez de Mendizabal, Jon Sarasua...-elkartu ziren eta ados

Asteartean, hilak hamahiru, aireratu zen ATB lehenengo aldiz

jarri euskal herri-telebista egiteko asmoan.

Hortik aurrera, ostiral arratsaldeak aprobetxatu zituzten bildu eta egitasmoa zehaztuz joateko. Bilera horietan telebistari zegokion guztia eztabaidatu zen

Udalaren onespena

Arrasate Pressen esperientzia eta arrakasta funtsezkoa izan zen, Joxe Aranzabalen hitzetan, “telebista diseinatze orduan eredu zelako eta Udalarentzat aurretiko sendoa. Bazelkiten serio eta zabal jokatu genuela aldizkarian eta telebistarekin ere ez genbiltzala txantxetan”.

Proiektua egin zen, 14 milioiko aurrekontuarekin, eta alderdi guztiekin berba egin ostean, aurkeztu egin zitzaion Udalari. Azkenean, eztabaida handi barik, uztailearen 17an egindako Plenoan Arrasateko Udalak onartu egin zuen.

Teknikari bila

Udalak onartu eta laster, Diputazioaren enplegu-sustapenerako deialdia aprobetxatu ahal izateko azterketa deialdia egin zen. Gazte dexente aurkeztu zen, Joseba Gartzia izan zen epaimahaiburu. Azkenean lau gazte aukeratu, lauak Andoingo Eskolako ikasle ohiak.

Harez geroztik, gauzak motel joan dira. Lekurik ezean, lau teknikariak IMiren gela batean egon ziren lanean abendura arte. Urriari ATBko talde eragileko hainbat lagunek Sabadellgo herri telebista bisitatu zuten. “Bisitaldi hura oso garrantzitsua izan zen guretzat, bost urteren ondoren, beste munduko bitarte-

ko barik, oso telebista itxurosoa egiten bait zuten”, diosku Jasone Díaz de Gereñuk, teknikarien arteko neska bakarra.

Azken txanpa

Lokala zela eta, ia pare bat hila-

bete atzeratu dira gauzak. Hasieran tren geltoki zaharraren ondoko MCMren tailerra jo zuten begiz eta egokitze proiektua ere egin. Azkenean obrei ekiteko prest zeudenean, tailerreko ugazabek atzera egin eta berriro etxe bila. Azkenean, eta behin behinekoz bada ere, Ospitale Zaharreko kapera eta inguruko gelak aukeratu ziren.

Falta zitzaizkien azken tresnak, heldu bezain aguro, emititzen hasi dira. "Ez gara guk nahi genituzkeen baldintzatan aireratuko, baina azpiegitura arazoak medio dextente atzeratu denez, irten beharra zegoela pentsatu dugu", diosku talde eragiletako batek.



Irudiak alderatzen

Nor, non, noiz eta zer ikusiko den

A TB, printzipioz, Arrasaten ikusteko telebista da. Antena Murugainen dago eta, baldintza orografikoak medio, Aretxabaletako zenbait lekutan eta baita Eskoriatzako Bolibarko zenbait baserritan ere ikusten da.

Lehen hilabeteko programazioa behin behinekoa izango da, frogak egiten dituzten bitartean. Tarte horretan, albiste saioak emango dira gehienbat, poliki-poliki programak gehitzen joango delarik. Asteazken hiru egunetan emango da, astelehen, asteazken eta ostiraletan. Astearte, ostegun eta larunbat goizetan errepikatu egingo dira bezperako saioak.

Astelehenetan Berriak, informazio saioa, Koldo Rodriguez edota Begofia Garaik aurkeztua. Ondoren Mondrasport kirol saioa, Jon Anduezen eskutik. *Sukaldaritza* (Karmele Zuazubiskar), *Medikua etxean* (Arantxa Lizaso eta Biktor Irigoien), *Bertsolaritza* (Jon Sarasua) eta *Ingurugiroa* (Jasone Díaz de Gereñu) tartekatuko dira hilean behin.

Asteazkenean Berriak eta *Mahaingurua*, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua.

Ostiraletan Berriak-en ostean *Erretratoa*, Jose Ramón Elortzak zuzenduko duen ordu erdi inguruko elkarrizketa. Ostean *Bapirulauke* umeentzako saioa,

AEDko zenbait gazteren ardurapean. Arduradunen hitzetan, azken hau izango da programarik zailena egiteko. Baliteke bera izatea azkena emititzen.

Bukatzeko *Musikantoi Mikel Irizar* eta *Patxi Monteroz* zuzendutako taldearen eskutik.



**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

DUODENO
antzerki taldeak
aurkezten du:

PASEN Y MUERAN

Otsailak 17 larunbata
Gauko 10,30etan
Amaia antzokian
Sarrera 500 pta.



Gipuzkoako Foru Aldundia / Arrasateko Udala



**Arrasateko Udal Liburutegia
Monterron Jauregia**



**BARNE ANTOLAKETA LANAK DIRELA ETA,
LIBURUTEGIA OTSAILAREN 19tik 24era
ITXITA EGONGO DA**

Barka eragozpenak

1990

AURREKONTUAK

ZIRRIBORROA**1990EKO UDAL AURREKONTUAK**

Udala	2.119.438.956	(iaz baino %28,45 gehiago)
AUKEA	94.755.001	(iaz baino %13,99 gehiago)
Iturbide Egoitza	81.923.000	(iaz baino %21,36 gehiago)
Aurrekontu orokorra	2.229.073.956	(iaz baino %27,31 gehiago)

1990EKO AURREKONTUAREN ZENBAIT INDIZE

1990eko hasierako zordunketa-indizea	%4,79
1990eko azken zordunketa-indizea	%12,53
Gastuak guztira biztanleko	80.799 pta.
Inbertsioak biztanleko	37.810 pta.
Udalak ezarritako presio fiskala biztanleko	23.082 pta.
Sarrerak biztanleko (mailegurik gabe)	65.572 pta.

SARREREN AURREKONTUA

1 KAP. Zuzeneko zergak	303.660.000	%14,33
2 KAP. Zeharkako zergak	68.750.000	%3,24
3 KAP. Tasak etabar	246.165.000	%11,61
4 KAP. Transferentzia arruntak	844.165.000	%39,83
5 KAP. Ondarezko sarrerak	17.500.000	%0,83
6 KAP. Inbertsio errealak	60.000.000	
Inorenganatzea		
7 KAP. Kapitalaren transferentzia	175.750.000	%8,29
8 KAP. Finantz aktiboen aldaketa	4.000.000	%0,19
9 KAP. Finantz pasiboen aldaketa	399.407.357	%18,57
Guztira	2.119.438.957	%100

GASTUEN AURREKONTUA

1 KAP. Pertsonal-gastuak	436.827.867	%20,61
2 KAP. Zerbitzuak eta ondasunen erosketak	277.361.334	%13,09
3 KAP. Maileguen interesak	50.000.000	%2,36
4 KAP. Transferentzia arruntak	316.462.267	%14,93
6 KAP. Inbertsioak	991.787.487	%46,79
8 KAP. Finantz aktiboen aldaketak	4.000.001	%0,19
9 KAP. Mailegu amortizazioa	43.000.000	%2,03
Guztira	2.119.438.958	%100

GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

GOBERNU-ORGANOAK 23.302.750 (%1,1)

Errepresentazio gastuak eta Alkatearen soldata	20.852.750
Argitalpenak	1.000.000
EUDEL	750.000
Gastu bereziak	350.000
Dietak eta bidaiak	250.000

KULTURA ETA KIROLAK 505.339.568 (%23,84)

Ferixalekuko Pilotalekua	150.000.000
Iturripeko Instalazioak	120.000.000
AUKEAren defizita	45.667.001
Santa Barbararen urbanizazioa	40.000.000
Ospitale Zaharraren berriztapena	38.000.000
Kiroldegiaren berriztapena	27.000.000
Personal-kontuak	21.527.565
Herriko Jaiak	17.810.000
Kultur Ekintzen antolaketa	13.000.000
Amaia Antzokiaren birmoldaketa	10.000.000
Monterroneko funtzionamendua	3.700.000
Kultur elkarteentzako subentzioak	3.360.000
Arte ekintzak	3.085.000
Rugby zelaia	3.000.000
Auzoetako bibliotekak	1.700.000
P.I.N.	1.500.000
Ludotekako funtzionamendua	1.435.000
Jose Letona beka	1.250.000
Amaia antzokiko funtzionamendua	1.200.000
Monterroneko erosketak	1.125.000
Ludotekako erosketak	1.125.000
Industri Museoa	1

HEZKUNTZA 125.074.684 (%5,9)

Ikastetxeen funtzionamendua	49.231.157
Personal-kostuak	27.893.350
Batzordearen ekintzak	12.000.000
Arrasate Musikal	11.350.000
Inbertsioak	10.000.000
Ikastolako Kirol instalazioak	9.000.000
Ume-Zaintzaren inbertsioak	4.000.000
Ikastetxeen Seguritate-Plana	700.000
Gastu bereziak	500.000
Kirol-materialen erosketak	400.000

OSASUNA 111.454.987 (%5,26)

Iturbide Egoitzako inbertsioak	25.387.484
Iturbide Egoitzaren defizita	21.376.000
Personal-kostuak	15.516.503
Etkez etreko laguntza	15.000.000
Pobretasun-plana	15.000.000
GUREA tailerrei laguntza	9.000.000
Batzordearen ekintzak	3.975.000
Drogomenpekotasunaren zerbitzua	2.000.000
Minusvalia tailerrei laguntza	1.800.000
K.I.U.B.	1.250.000
Hirugarren adineko ekintzak	500.000
Langabetuenentzako laguntzak	350.000
Gastu bereziak	300.000

HIRIGINTZA 499.950.003 (%23,59)

Ondare patrimonialaren erosketak	100.000.000
Udaletxearen berriztapena	70.000.000
Ur eta saneamendua	50.000.000
Zerbitzu-sari teknikoak	45.000.000
Udaletxearen ekipamendua	40.000.000
Kanposantu berria	40.000.000
Oxiñako zubia	30.000.000
Argiteri publikoa	28.000.000
Mankomunitateko inbertsioak	22.000.000
Kooperazio bidezko planeamendua	15.000.000
Bideen asfaltatzea	10.000.000
Obenerrekako erreka	10.000.000
Landareen mintegia	8.300.000
Kataideko jatetxea	5.000.000
Lorategirako inbertsioak	5.000.000
Zabortegi alternatiboa	5.000.000
Semaforoak	2.500.000
Hiri-altzarietarako inbertsioak	2.500.000
Udal ondarean obrak	2.000.000
Ingurugiroko inbertsioak	2.000.000
Landareen birlanaketa	2.000.000
Urpakdoen plana	1.500.000
Eraikuntzen mantenimendua	1.500.000
Eraikuntzen mantenimendua	1.500.000
Iturri publikoak	1.000.000
Aldaiko kanposantua	1.000.000
Ingurugiro dirulaguntzak	250.000

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

GASTUEN AURREKONTUA SAILEZ SAIL

Alde Zaharreko P.E.R.I.	1
Oinezko Zumardia	1
Bidegorria	1

BARNE SAILA 355.691.968 (%16,78)

Ario orokorretako pertsonala	262.248.090
(Idazkaritza, Hazienda, Udaltzaingoa eta Zerbitzu Teknikoak)	
Funtzionamendu-gastuak	32.030.000
Lanerako prestakuntza	29.228.877
INEM-Diputazioa Enplegu programa	19.228.877
Material informatikoaren erosketa	10.000.000

AUZOAK 68.401.181 (%3,23)

Mendi-nekazaritzako inbertsioak	20.000.000
Inbertsioak	18.000.000
Auzoen mantenimendu arrunta	9.945.681
Auzoetako jaiek	5.350.500
Landa-bideen inbertsioak	3.000.000
Landa-bideen mantenimendua	2.100.000

ZERBITZUAK 232.105.000 (%10,95)

Zerbitzu mankomunatuaren kuota	68.370.000
Kale garbiketa	55.000.000
Parke eta lorategien mantenimendua	32.000.000
Argiteria publikoa	19.000.000
Ur-zerbitzurako erosketak	12.000.000
Ur-isurketaren kanona	8.700.000
Zabor-erakuntziak	7.500.000
Zerbitzu orokorren funtzionamendua	4.500.000
Brigaden ekipamendua	4.500.000
Biltegirako erosketak	4.000.000
Semaforo eta trafiko-seinaleak	2.500.000
Lorategien mantenimendua	1.625.000
Fatxaden garbiketa	1.500.000
Arratoiaren kontrako kanpaina	1.000.000
Bideen mantenimendua	1.000.000
Udal ibilgailuen erregai	900.000
Ur-zerbitzuaren erosketak	800.000
Bake-Epaitegiaren gastuak	600.000

EUSKARA 94.377.699 (%4,45)

Euskaltegiko pertsonala	40.143.304
Beste pertsonala	25.926.312
Dirulaguntzak	1.750.000
Batzordearen ekintzak	2.700.000

GAZTERIA 10.741.116 (%0,51)

Batzordearen ekintzak	4.100.000
Pertsonala	3.391.116
Dirulaguntzak	1.750.000
Garbizi Etxearen ekipamendua	1.500.000

FINANTZ ZORRA 93.000.000 (%4,39)

Maileguen interesak	50.000.000
Maileguen amortizazioak	43.000.000

Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.


Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

POLITIKARIAK AURTENGO ARREKONTUEN AURREAN




XABIER ZUBIZARRETA (HB)

1990erako aurrekontuak legealdi honetako 4.a izaki, honako ezaugarriak izango lituzke; batetik, inbertsio plan oso sendoa. Arrasatek azpiegitura sozial eta kulturala behar den mailan gauzatzeko; ia hasitako ahaleginaren jarraipena eta mamitzea suposatzen du. Bestetik, beste kapitulu guztien arteko oreka gorde nahi izan dugu; zerbitzuak hobetzeko aurrean arte egin dugun ahaleginak gastu arrunta areagotu du eta horri eutsi nahi zaio pixka bat; hala ere, zerbitzuen gaurkotze lanean jarraitzea eskatzen zaigun neurrian, horri erantzuten jarraitu beharra dakusagu, Udaltentzako eskatuz Administrazio orokorreko diru-iturrietatik gero eta parte hartze haundiagoa.

PEDRO MARI RUIZ DE AZUA (EA)

Beno, aurtengo aurrekontuek, legealdi honetako aurrekontuen ildo beretik segitzen dutela esango nuke. Hala ere, inbertsioen kapituluaren apurketa antzekoa ematen da. Hiru obra oso garrantzitsu burutuko dira, iturripeko kiroldegia, Frontoia eta Kanposantua. Bestalde, oso garrantzitsua da, obra hauek proiektua egina dutela. Aurrekontuak onartzean, lanen adjudikazioa egingo da eta honek lanak burutzea ziurtatuko du. Lan hauek burutzeko dirua ere badugu, dirulaguntza garrantzitsuak lortuko ditugu eta horrez gain, ez dugu Udala hipotekatuko. Gure ondoren etorriko den udalbatzak ez du gure lanaren ondoren Udala hipotekaturik aurkituko.




JOSE LUIS LANA (PSOE)

Guk aurrekontu hauei makina bat emendakin jarri dizkiogu, baina bat orokortasunari jarri diogu, gure ustez aurrekontu hauek beste urtetakoek duten akats bera dute eta. Azken hiru urteotan ez dira aurrekontuak bete gobernu-batzordearen funtzionamendu eskasagatik. Urtero zenbait milioi ez dira gastatzen eta horrela ezin da segitu. Ez dute inolako sinesgarritasunik ematen. Aurrekontuak ez datoz bat herrien beharrekin, aurrekontuen %17a kirolei eskainiko zaie. Guk kirolak herri baten behar handiena diren galdetzen ordu gure buruari, bereziki beste frontoi bat behar dugun galdetzen dugu, dagoeneko zortzi frontoi ditugunean. Aurrekontu eskuindarrak dira, erdi goi mailako jendearen alde egiten dutenak.

XABIER LASAGA (EAJ)

Aurtengo aurrekontuen ezaugarri nagusia, iazkoen jarraipena direla izango litzateke, inbertsioei dagokienean behintzat; hau da, iazkoen tonuari eutsiko diotela.

Ziriborroaren elaborazioa azkarra izan da, eta saiatu ere saiatu gara alderdi guztien adostasuna bilatzen. Dena den, proiektu batzuetan ez dugu halakorik lortu. Ferialeko frontoiaren kasuan, adibidez, hiru alderdi bakarrik egongo gara batera. Jendeak ideia bat eduki dezan, esan dezagun 100 pta. bakoitzeko 47 inbertsioetarako emango direla, 20 pertsonal gastuetan, 15 subentzio eta transferentzietan, 13 barne funtzionamenduan, eta 4,5 interes eta amortizazioak ordaintzeko.



AITOR OROBENGOA (EE)

Gu ez gaude batera ados aurtengo aurrekontuekin, batez ere Ferialeko frontoian gastatu nahi den diru mordoagatik. Gainera, kostu osoa Udalaren kontu geldituko da; eta horrek zera suposatuko du, Arrasateko biztanle bakoitzak ordaindu beharko duela frontoia bere poltsikotik. Familia bakoitzak 60.000 pta. inguru eman beharko ditu, baina ez zaie galdetu ea ados dauden diruaren erabilpen horrekin. Gure ustez beste premia larriagoak daude Arrasaten: hezkuntza departamentua, auzotako parkeak, herrian azpiegitura egokia sortzea...

Kontua da, Udalak lehentasuna eman nahi diela beharrezkoak ez diren proiektu batzuei.

"Bizimodu stressanteak oso harritu nau"

Asier Aranguren, Aretxabaletatik Bostonera

Asier Aranguren, aretxabaletar gaztea, Informazio Zientzian lizentziatua, lau urtez ETBko kirol sailoetan aritu da lan egiten. Aurten Fullbright-COEk emandako bekaren bidez Boston-en Telebista-master-a burutzen dihardu. Oporraldian harrapatu eta Bostonen berak izandako inpresioez hitz egin zigun.



Asier Aranguren hartuz, noski.

— *Arrasate Press: aspaldian master hitza sarri entzuten dugu, baina zer da zehazki master-a?*

— *Asier:* Hemengo unibertsitateek ez dituzte masterak eskaintzen. Master-a lizentziatura ondorengo ikasketa da, EEBBtik datorren ikasketaren mota dugu. EEBBn lizentziaturek bost urte iraun beharrean, lau urte irauten dute. Lau urte horietan ikasketaren teorikoak jaso ohi dira eta ikasten segitu nahi duenak Master-a egiten du. Ondoren doktoretza izango dugu. Master-a jasotako ikasketak lan mundura egokitzeko prozesua da.

Ipar Ameriketara, bat ere espezializatuak ez diren karrerak burutzen dituzte. Masterraren hasieran aukeratuak ikasketak erabat aldatzeko. Nire zenbait ikaskide esaterako, injeneru edota maisuak dira. Beste era batean pentsatzen dute. Lan aldaketak oso erraza da, ez dago lan finkorik. Masterrak, lanez aldatzeko bidea izan daitezke. Telebista masterra eginez gero, telebistan lan egiteko gaitasuna duzula suposatzen da.

— *Ipar Ameriketako oso gizarte lehiatsua omen da, zure eritziz hala al da?*

— Bai, nik bizi dudana giroa behintzat bai. Ikasketak burutzen dituzten unibertsitateak pribatuak, oso garestiak eta izen onakoa da. Han, ikasi duten Unibertsitatearen ize-

naz harro dira. Lizentziatura aipatzean, zein unibertsitatean atera duten ere esango dute. Horrez gain, notak ere asko esan nahi du. Eurentzat, masterreko edozein ikaskide, edozein lanetarako lehiakidea izan daiteke. Klasean horrek eragina du, tentsio handikoak izaten bait dira eta asko ikasi beharra bait dago. Klaseko lagunak izan daitezke, baina apunteak uztea eta horrelakoak burutik ere ez zaie pasatzen, ezinezkoa da. Talde lanetan ere, protagonismo nahia izaten da, lana denon artean eginez gero ere, bakoitzak zer garatu duen azalduko du.

Irakasleek ere lehiakidetasun hori suspertu egiten dute, beren eritziz ikasmaila goratu egiten du eta. Inpos-

Lanerako, arrakasta profesionala izateko eta gastatzeko baino ez dira bizi.

Erritmo estressante horrek, une oro tentsioan egon behar horrek, aho zabalik utzi ninduen. Beraien inguruko topikoak ezagutzen dituzu, kompetentzia, etab., baina ni mugitzen naizen testuinguruan egia da.

Ez dute kalearen zentzurik, lanean edo etxean aurkituko dituzu. Denbora ahalik eta gehien aprobetxatzea da

txiki bati begira egindako telebista duzu, ikuspegi zabalagoa, ez ditu informatiboak bakarrik egin nahi, kirola, kultura... hezi egin nahi du. Azken finean, telebista publiko baten helburuak bete nahi ditu ETBk. EEBBtan telebista kate publiko bakarra dago, eta berau hiltzear, inork ez bait du ikusten. Telebista egiteko duten ikuspuntua erabat desberdina da.

ETBk baino askoz baliabide tekniko gehiago dute, bestalde, satelite konexioak esaterako, nahi dituztenean sartzen dituzte.

Gonbaratzekotan, hango telebista hemengo baino azkarrago eta dinamikoagoa dela esan behar.

Ikuslegoa ere desberdina da. Hemengo ikusleak ez du istripu irudi ikaragarriak edota odola ikusi nahi. Aurkezleen artean elkarrizketa eta txantxa guztiz normala da han, hemen ez da horrelakorik egiten.

Edukin edo informazio aldetik hobe edo txarragoa denik ez dago esaterik. Europar telebista, oro har, desberdina da. Ipar Ameriketara saltzea da helburu. Saldu eta bota eta bota.

"Telebista egiteko beste era bat da hangoa"

tu gauza handirik ez da egongo, baina balorazioak beste lanekin alderatuz egingo dira. Beraiek oso garbi dute, ahalik eta ondoen egin behar dutela eta albokoa baino hobeto.

— *Hara joan eta zerk harritu zintuen gehien?*


— Bizitzaren aurrean duten jarrera, beti ere ni ikastera joan naizela eta unibertsitate giro hori baino ez dudala ezagutzen kontuan

haien helburua. Libre izaten dituzten orduetan ordea, ez dute gauza berezirik egiten, telebista ikusi eta kito.

Paseoan ibiltzeak izan dezakeen balioa ez dute ulertzen.

— *ETBn aritu zara lanean, zein egoeratan dago ETB hango telebistekin gonbaratuz?*

— Nire ustez ezin daitezke gonbara hemengo eta hango telebistak. ETB herri



Eskubaloia

Aurtengoan, denboraldi ezin hobea egiten ari da Arrasate Kirolak eskubaloi taldea. Larunbatean, Ormaiztegiaren aurka jokatu zuten Musakolan, eta gure taldea 26-18 nagusitu zen.

Hauxe izan zen arrasatearrek garaipen erraza eskuratzeko lehen aldia zaretuen aurrean, orain arte partidu gehienak bi edo hiru golez irabazi bait zituzten. Ramon Azkarate izan genuen partiduko jokalaririk onena, 6 golek; dena den, beste jokalariek ere maila polita erakutsi zutela esan behar.

Rugby

Aurreko astean ondo jokatu eta galdu egin bazuen, asteburu honetan ez zaio hori gertatu Arrasate Kirolak Rugby taldeari.

Fortunako donostiarrak etorri ziren igande goizean Iturripera. Partidu txarra, baina Imanol Aiastuik lortutako bi zigor-kolperen ondorioz, arrasatearrak markagailuan nagusi: 6 eta 0.

Datorren asteburuan gure mutilak Gemikara joan beharko dira; aukera polita behingoz azken postuetatik alde egiteko.




Jose Antonio Gay

Larunbatean, Pariseko Bercy kiroldegian egon zen, Espainiako selekzio seniorrarekin 4 x 200 metroko errelebotan parte hartuz.

Sergio Lopez, Angel Heras eta Amalio Capellan izan zituen taldekide. Jose Antoniok azken posta korritu zuen. Azkenean 4. postuan sailkatu ziren, minutu bat, 25 segundu eta 56 dezimako denboraz: Espainiako errekor berria.

Datorren asteburuan ere albiste izango dugu Gay, Espainiako pista estaliko txapelketa absolutuan parte hartuko bait du, 200 metroko distantzian. Txapelketa hauek Anoetan egingo dira, eta hemendik, zortetik onena opa diogu Jose Antoniori.




ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABAETA**

p o d i u m a

Zigor Gartzia, Arrasateko Judoaren promesetariko bat

Aste honetan, inoiz baino zentzu handiago hartzen du gure Podiumak; horraxo igo bait zen Zigor otsailaren 4ean Altzako kiroldegian, podiumera, Gipuzkoako Judo Txapelketan hamazazpi urtetik beherakoen mailan brontzezko domina jasotzera.

Ez zen bakarra izan. Gaizka Aranegi, Jose Antonio Mertzan eta Baraxil Bengoak ere domina bana ekarri zuten Arrasatera.

Zigorrek hamabost urte ditu, eta duela zortzi ekin zion judoari. "Lagun batek eraman ninduen entrenamenduak ikustera, eta gustatu egin zitzaidan. Hasieran Amadeo izan nuen entrenatzaile, hiru bat urtetan, eta geroztik Gallego".

Judoka bakoitza, bere adin eta antzeko pixua dutenen aurka aritzen da. "Ni, berrogeitamazazpi kilotik beherakoen kategorian".

Galdetu Zigori zergatik aukeratu zuen kirol hau. "Beste batzuk ere probatu izan ditut, mendira irtetea, adibidez. Baina judoa aukeratu nuen, agian oso kirol konpletoa delako. Futboleant hankak lantzen dira gehien, eskubaloian besoak. Judoan, oster, gorputz guztia berdin garatzen duzu".

Judoan aritzeko zaletasuna bai, baina beti ere zailtasunak izaten omen dituzte taldea aurrera ateratzeko. "Gehienok gazteegiak gara, hemezortzi urtetik beherakoak. Eta dauden helduek paso egiten dute lana egitetik. Hala doakigu!".

Askotan, hor nonbaiten lehiazera joan nahi, eta ezin. "Gurasoren



bat ez bada enroilatzen, denok etxean".

Eta ez hori bakarrik. "Lehen, urtero txapelketa bat antolatzen zen Arrasaten, San Juanetan, eta AUKEAk dirua ematen zigun horren truke. Baina azken urtean hori ere ez zen egin".

Txarto, txarto daudela gauzak horrela. Dena den, orain gutxi lehendakari berria aukeratu du Judo taldeak, eta badirudi neska-mutilek konfidantza osoa dutela harengan. "Bai, Bittor Gonzalez aukeratu genuen. Gaztea da, eta judoa maite du. Ziur zerbait egingo duela; behintzat, zertxobait gehiago mugitu...".

Badaki Bittorrek, erronka polita du etorkizun laburrerako. Berrogeitasei kirolari daude ahaztuegia dautzagun Judo taldean, eta gainera, gazteek argi erakutsi zuten Altzako kiroldegian maila ona dutela; lau domina lekuko!

Zigor, eta Zigor bezala beste guztiak itxaropentsu daude, aurrerantzean gauzak hobeto irtengo direlakoan.

Saskian porrot

Bilbora joan, Aguilas taldearen aurka A-2ko bigarren ihardunaldia jokatzera, eta emaitza eskaxa esku-ratu zuten Arrasate Kirolak Saskibaloitako taldeko mutilek. Jose Mari Balzategiren jokalariek 55 puntu besterik ez zituzten lortu igandeko partiduan, eta noski, horrela oso zaila da neurketarik irabaztea.

Bukaeran, Aguilasek 72, Arrasate Kirolakek 55. Datorren larunbatean Patronato taldea hurbilduko da Musakolara, eta orduan bai ezinbestekoa izango dela bi puntuak eskuratzea.

Mondrak galdu

Mondrak, Real Unionen aurkako partidua jokatu zuen igande arratsaldean, Irunen.

4. minutuan Sukiak egin zuen partiduko gol bakarra. Hortik aurrera gogor ekin zioten erasoari arrasatearrek, baina egia esan ez zuen beste munduko gol aukerarik sortu. Puntuak Irunen gelditu ziren, beraz. Eta datorren ihardunaldian, gure taldea Ondarroara joan beharko da, Aurreraren aurka jokatzera.

Pedrusko...

Pedruskok, bere aldetik, ez zuen emaitza hoberik lortu, Arabako San Viator taldearen aurka. Hiru gol egin zituzten San Andresekoek (Rafa Luengo, Lazaro eta Juanmak), baina bost jaso (bostak ere lehen zatian).

Denboraldi irregularra egiten ari dira. 38 gol sartu dituzte, ez dago gaizki; baina etsaiek ere 46 egin dizkiote, eta hori kezkatzekoa da. Ikusi behar nola irteten diren gauzak datorren asteburuan, At. Alavesen aurkako neurketan.

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

Gidari baten egunkari ezkutua

Zortziak laurden gutxi dira. Goiz hotza. Izotza. Arrasate paseleku-tik Kontzezifo aldera noa, goizero bezala. Bapatean, zaharren egoitzaren inguruan, sekulako auto-ilada. Eta Araba Etorbidean ere berdin, San Andres aldeko iluntasunean galtzen da autoen lerro luzea. Dios! Gaur lanera berandu! Zer arraio gertatzen da?

Ia hamar minutu behar ditut semaforoetara bitarteko ehun metroak egiteko. Tira! Saizarbitoriak nobela osoa behar izan zuen! Eta semaforoetara iristean... ertzainik ez! Klaro, orain ulertzen da! Baina, nola liteke Arrasaten dagoen trafikoa desastrearekin eta saihesbideko txapuzarekin, inork neuririk ez hartzea? Ez al dio inori axola honelakoetan galtzen den denborak? Eta egiten den esne txarrak? Soluzio hoberik ez dagoen bitartean, nora



joan behar da pankartarekin, non egin behar da oihu gutxienez egun, ordu eta leku jakin batzuetan ertzaina finko egon dadin?

Lanetik bueltan kamioi baten atzetik. Ohi bezala. Gaurkoa lau ardatzeko trailer atzeritarra da, baina berdin izan zitekeen txatarraduna edo hormigonera edo basoan pinuz kargatutakoa edo garbigailuz betetako kamioitzarra. Total parra!

Kontua da kamioiak ezarrirako abiada motel geldoan noala, eta

oraindik bihurguneetan frenatu egin behar! Aurreratzeko intenzioa ere ustela ageri da. Etengabe datoz autoak beste aldetik eta, gainera, kamioi horren aurrean beste bat egongo da ziur, eta aurrerago beste bat, eta beste bat... Ez dago soluziorik.

Derrigorrezko etsipenaren amorruz hartu dut erabakia. Ezkutuan daramadan izpi desintegratzailea atera, kamioiarengana zuzendu eta zip! bapatean desagertarazi dut. Horrela zip! eta zip! bidea garbitzea lortzen dut eta banao libre, oztoporik gabe, txispa bizian. Banao eta banao...

Argi gorri distiratsu batek itzultzen nau nire onera. Lau ardatzeko kamioi atzeritarrak frenatu egin du semaforoan... eta nik ere bai atzetik. Kutsadurak eragindako zorabio hutsa izan da nonbait...

Mikel Intxausti

Gorka

**ILEAPAINDEGI
MIXTOA**

Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALETA



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

PEÑACOBATA
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

ORTZI erretegia

Angiozar auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA

**ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN**

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Zeharkale Estalla 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESS

77 05 65

URREZKO 8 ARAUAK

ETXEBIZITZA EROSI EDO SALDU BEHAR DUTENENTZAT



1. Eskain-ekari merkatu handia izan
Oso garrantzitsua da erosleentzat saltzeko etxebizitza gehienak aztertu ahal izatea eta ja-beentzat erosleak joateko bulego bat izatea.




2. Kolaborazio espezializatua bilatu
Aholkulari espezializatuaren lana, nahitaezkoa da etxebizitzaren salerosketak dauzkan aspektu guztiak esagutzeko.



3. Segurtasun-neurriak bilatu
Disgustu bat baino gehiago ekiditeko (ebitatzeko), zamak, hipotekak, bahiturak, morrontzak, etab. ezagutzea, ordainketak kontu abalaturatuegitea, eta nori zabaldu eta erakusten dion etxea jakitea.



4. Ondorio fiskalak aztertu
Fiskoarekin topo egin gura ez baduzu, aukera desberdinen ondorioa aztertu, etxebizitza erosi edo saldu baino lehen.



5. Behar den denbora inbertitu
Eta ez gehiago. Eroseelek, guztiko informatizazioaren bidez, "bat-batean" ezagutzen dute merkatua eta planuak, gitzak, etab. dauzkate. Jabeek ez dute gestorik egin behar Erakunde, Kutxa, Notari, Erregistroetan...



6. Aidez aurreko balorazioa egin
Saltzeko zein erosteko, merkatuko benetako prezioa ondo eta egoki jakitea komeri zaizu.



7. Finantz alternatibak aztertu
Eta salerosketen-kontratu bati erantzuteko kreditu eta subentzio-alternatiba desberdinak zehatzmehatz ezagutzea eta mesedegarriena aukertzea.



8. Kontu handia jarri kontratuan eta eskrituran.
Kontratu on bat saltzaile eta eroslearentzat, biantzako, garantia da. Garrantzitsua da halaber, legez tramite desberdinak eta bare kostuak ezagutzea: eskriturak, BEZ, notari-gastuak, erregistro-gastuak, gainbalioa, etab.

Guzti hau gurea bezelako bulegoan konponduta izango duzu, talde profesional batek abalaturik.



Anboto

ETXE-APAINKETA

Emalea:

Rosario Garitano (Apaintzailea)

Egunak:

otsailak 22 eta martxoak 1

Arratsaldeko 3etan. Dohainik.

AED-n lokalean

Informazioa: 79 54 46



Hezkuntz sistemaren erreforma (II)

Eskolan, aldaketen eta berritasunen aurrean zalantzak sortzen zaizkigu. Ez ote da izango panpin berdina jantzi ezberdinekin? Agian ez ote zen izango zerbait aldatzea, dena lehen bezala mantentzeko? Erreformak proposatzen duena ez da aurpegiaren garbiketa, baizik eta irakasleak, ikasleak eta gurasoak ikutuko dituen zerbait sakonagoa eta edukinei eta aprendizai-moduei eragingo dien zerbait.

Egitura eta antolaketa mailan proposatutako aldaketak ez ezik (beharrezko irakaskuntza hamasei urte arte luzatzea; beharrezko irakaskuntza eta Derrigorrezko Bigarren Mailako Irakaskuntza), haurren, irakaslea eta hezkuntz iharduera ikusterakoan beste hainbat aldaketa proposatzen da.

Askotan haurrari buruz zera pentsatu dugu: nagusiok sartu nahi dioguna jasaten eta onartzen duen gizaki pasiboa dela. Baina gure eguneroko

obsesioak gizaki aktiboa, ikertzaile handia edo txikia dela esaten digu. Bere aurrean dituen objektuak eta gertaerak behatuz, maneiatuz, bere inguruan dauden pertsonekin harremanetan, pertsonekin lotura afektiboak ezarritik, taldeetan sartzen da, adiskideak egiten ditu, parte hartu eta kolaboratu egiten du... haurra, bere nortasun osoa garatzen du. Eta hau da Erreformak hartzen duena: haurrak berak ezagutza eraikitzeko duen ahalmena, errealitatea deskubritzeko duen gaitasuna.


Eta eraikuntza pertsonalaren prozesu honetan -hori da aprendizai-irakaslea ez da, askotan pentsatu den bezala, arduradun bakarra, haurrak buruz ikasi (eta berehalaxe ahaztuko) dituen ezagupenak, transmititzeko. Prozesu honetan irakasleak ikasleari laguntzen dio; haurrak gauzen artean erlazioak ezarri dituzan, pertsona ezberdinekin

harremanetan sar dadin, irakasleak baldintza egokiak sortuko ditu. Irakaslearen lana egoera aberatsak sortzea eta haurraren ekimena suspertuko duten objektu ezberdinak eskaintzea da. Hau da Erreformak kontutan hartzen du.

Baina irakaslearen lana ez da lan isolatua eta indibiduala. Hezkuntz iharduera -Erreformak azpimarratzen du- irakaslearen osoaren ekintza da, talde-lana da. Irakasleak haurraren testuinguruari egokitu behar dizkio Ministraritzaren orientazioak, hezkuntz ekintzari zentzua, batasuna eta koerentzia emanez. Ondorioz, ez da berdina izango Aragoen edo Euskadin irakastea; are gehiago, ez da berdina izango Arrasaten edo Donostian irakastea. Bai irakatsi behar duguna eta bai irakasteko modua eta zertarakoa baldintza ditzake testuinguru honek.

Klarion taldea

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabilola Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

77 05 65

Atzeko atetik

Dударik gabe, drogaren problema arazo larria da eta gizartearen ardura berezia beharrezkoa da.

Egunero talde berriren bat sortzen da gai honekin kezkatutik, drogaren menpe dagoena tratatzeko toki espezializatuak prestatzen dira eta gizarteari neurri egokiak hartzea eskatzen zaio. Benetan txalogarria da jokaera hau; baina hachis, marihuana, koka eta heroinari hain gogorki eraso egiten zaien bitartean, gure artean badugu beste droga bat lehen aipatutakoak bezain kaltegarria eta gaur egun heriotz eta osasun-problema haundiagoak sortzen dituen eta hau ez dugu kontutan izaten, ahazturik daukagu.

Inork edo inork gutxi, hobeto esanda, egiten dio aurre; are gehiago ospakizun-gaia dugu askotan. Argi eta garbi dago, alkoholaz ari garela, noski; droga "gogorra" hau ere, gure



herrian gehien erebiltzen dena, Euskadiko droga berezia, gure gizarteak onartua duen droga eta jende askorentzat diru-iturria, gainera.

Gizarteak, beste drogen aurka dabilen bitartean, alkohola baimendu egiten du.

Gaztetxo bat mozkorturik ikusitakoan nabaritzen dugun zirrara ez da beste gazte bat koka hartu ondoren ikusten dugunean bezain handia izaten.


Pertsona alkoholiko heldu bat ez dugu drogazalea dela esaten: hau hordia, mozkorra da, edo ematen zaion "epitetorik" gogorrena alkoholikoa izaten da.

Baina ez da bazterturik bizi, inor ez da bere atetik ibiltzen, normalean gizarte barruan integraturik egoten da, lagun artean ez da alde batera uzten drogazale bezala, normalean ondo ikusita dago eta bere gogoindar-eza erraz barkatzen zaio.

Drogak herria "moteltzeko" erabiltzen direla diote eta, alkoholak zer egiten du? Argitu egiten gaitu ala?...

Hurrengo asteetan zehar, gai hau ukituko dugu, batez ere gure herriko gaztetxoaren artean duen eraginagatik.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*



Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)


Udalpe 5, Etxabea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

Udelatxen menpe

Udalaitz Gipuzkoa eta Bizkaia tartean kokatutako mendi luze eta argia da. Arteak dira bere magaletako zuhaitzak, bera bezain zahar eta ederrak. Beherago oraindik pinadi eta etxebizitzak. Lehenak baserriak. Hemendik hasiko dugu gaurko irteeratxoa: Erguinetik Udala alderantz hartu eta lehendabiziko aldapak gogorak izan dira; Larratxu baserri ondotik pasatu gara. Eskumatara Santana baserria eta aurreraxeago monjen konbentua. Kontuz! laster, 50 m-tara edo, Eguzkitza baserri ondotik eskumako pista hartu. Pista horrek gorantz eroango gaitu pinadi batetik bama. Jarraitu Kanpazar aldera joko bagenu legez. Laster alanbrada baten ertzetik jarraitu eta aurrerantzean ez dago galtzerik.

Goitik Akeiko tximinia ikusiko da: "orain badakigu non gauden". Salturri eta Arremena baserrietara




doan bide-asfaltua hartu eta Mietzereka elkarte inguruan gora, Arrasate-Elorriko bidetik gora, Kanpazar gainera heltzeko. Hemen gura baduzu Santa Luzia aldera hartu, Besaide-ra joateko.

Osterantzean, Angiozarreko baserrietarantz edo berriro jeitsi Mietzerrekaraino eta hemendik pista-bide bat hartu eta San Balerio ermita

ingunera jaitsi, Ubar, Askasibar, Zerdena, Zoruetxe, eta Olabetxe baserriak pasatuz., aurrera egin eta errepidetik Arrasatera.

Bien bitartean, gu mendi haundi eta zabal horren menpean liluraturik buruari gora eragin guran, beti ere mendi zoragarri eta tente hau inguratu baino ezin izango dugularik.

K. U.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgariak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE

IKATZ

ARGAZKI ETXEA

QSS

ZURE ARGAZKIAK ORDU 1ean

C	A	S	A
D	IKATZ	E	
F	O	T	O
G	R	A	
F	I	A	

Estibaliz etorbidea 2,
Tfnoa: 27 09 22
01004 GASTEIZ

Iturriotz 8,
Tfnoa: 77 04 01
ARRASATE

Dendaraba merkatal
zentrua
Tfnoa: 28 98 11
GASTEIZ

IREKI BERRIA

ZURE
KOLORETAKO
ARGAZKIAK
ORDU 1ean

Zure argazkiak
errebelatzean % 20ko
beherapena edo
erroilo bat doan



Aste gazte

"Gizartea gobernatzeari buruz pentsatu duten guztiak ados daude gazteriaren heziketa moduan dagoela munduaren destinoa"

(Aristoteles)

"Ezinbestekotzat jotzen dugu informazio gehiago edukitzea (laguntzak, beka, erakundeek antolatutako ekintzak eta norengana jo parte hartzeko,...); aldiz, publizitate negatiboa eskaintzen zaigu"

(Haurren legebiltzarrean hartutako akordioa)

Bekak

*Britainia Handiko zenbait zen-trutan ingelezko uda ikastaroetarako laguntzak. Jasotzaileak: BBB eta IEEeko 3. mala eta 2. mailako LHko 1.a egiten ari diren, 16tik 18 urte bitarteko ikasleak. Epea: 90-02-28

*1990ko udan Irlandako unibertsitateetan ikasteko 8 beka (Unibersity College Dublin (5 beka), Unibersity College Cork (3 beka)) Lizenziatu edota azken kurtsoetako ikasleentzat. 375 libra irlandar

(matrikula, jana eta bestelakoak norberaren kontura) Ingelesa ondo ezagutu behar da. Epea: 1990eko martxoaren lehen

*RAFERa taldeetan ikas-bidaiak egiteko beka. 30 urte beherakoen-tzat. Taldeak ikasle eta irakasle batekoak izango dira. Eskabideak: Bidaia egiteko baino 4 hilabete lehenago aurkeztu beharko dira.

*Grezian, 6 beka ikerketa edo espezializatorako. 4-10 hilabete-koak (irailean hasi eta 1991ko ekainean bukatu). 45.000 drakma hilean. Epea: 90-2-26

*Frantzian, lizenziatu edo dok-toreei zuzenduak -35 urte behera-koak- Letra eta zientziak ikasteko aukera. Kurtso batekoa, hots 9 hila-betekoa. 2.210 frankoko diru kopu-rua. Epea 90-2-28

Lehiaketak

*"Cinema Joven 90" lehiaketa (Valencia). 26 urte baino gutxiago-ko gazteentzat. Bakoitzak 2 obra aurkez ditzake, gehienez 30 minutu-ko luzerakoak. Formatoa VHS edo U Matic BB. Edozein hizkuntzatan.

Epea: maiatzaren 15a baino lehen.

*"Elena Fortúm" saria. Gazte idazleei zuzenduta. Lanaren hedape-na, gutxienez, 80 orrikoa. Diru kopurua: 2 milioi. Epea: martxoaren 1a.

*"A. Von Hubold J.C. Mutis 1990" Saria. Ikertzaile alemana eta espainiarrentzat. Sarituek, eurok aukeratutako ikerketa proiektu koo-peratibo batean parte hartuko dute. Diru-kopurua: gehienez 400.000 pta. hilean (12 hilabete) Epea: 90-5-31

Ihardunaldiak

*Sexualitateari buruzko ihardu-naldiak (Bilbon). Bidebarrietako liburutegian. Egunak: otsailaren 28tik martxoaren 1 eta 2 arte. Ordua: Gaueko 8etan.

Bidaiak

*Ihateriak Venezian: Irteera otsailaren 23an. 7 egun. 23.500 pta.

* Ibiza: 5 egun. Bus + itsasontz. 18.550 pta.

* Paris: 6 egun. Busez. 18. 750 pta.

Informazio gehiago: Gazte Zerbitzuan Tfnoa:79 09 00



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pablola. Tfnoa: 79 62 11

baldana

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Kirurgia
Laborategia
X izpiak
Odontologia
Ile apaindegia
Urgentzia 76 27 97

Koldo Eleizalde 28, etxebehea.
Tfnoa: 76 27 97 BERGARA

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Asteguntan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- Musakolan etxebizitza salgai. Tfnoa: 79 36 93. Ramón.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko tellatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramalo kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 799718.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 793900 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 243195 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo tellatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 798176

LANA

- Umeak zaintzeko neska euskalduna behar da. Deitu 79 81 61 tfnora.
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tfnoa: 79 97 52 (deitu goizetan, larunbat eta igandetan)
- Ikasle arduratsuak bulego edo antzekotan lan egingo luke. Tfnoa: 79 39 84 (arratsaldeko 6etatik 7etara)
- Disko-pub-kafetegietan esperientzia-dun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko haurrelklase partikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- IEE 2. kurtzoko neskak matematika eta natur zientzietako klase partikularrak behar ditu. Tfnoa: 79 39 11
- Emakune euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Behar dira: sukaldari laguntzailea (barra zerbitzuan lanean dakiena) eta sukaldaria. Tfnoa: 79 17 86. Eguerdiko 2etatik 4etara eta gaueko 9etatik aurrera.
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 797736

SALEROSKETAK

- Sonab markako amplifikadore-digitala salgai. Tfnoa. 79 29 09
- Akai markako pietina salgai. Tfnoa: 79 29 09
- Panagor markako zooma salgai, 55-225 mm-koa. Tfnoa: 79 45 39
- Bizikletak salgai. Akimoto GAC 15.000 pta. Luna GAC 20.000 pta. Berri berriak. Dei ezazue bulego orduetan (94) 658 20 12 Marian.
- Orbea "Deba" paseorako bizikleta. 5 pinioi. 8etatik aurrera, 79 99 82
- Commodore 64 salgai. Berria. Assembler Tutor eta guzti. 25.000 pta. Tfnoa: 79 81 14. 9etatik aurrera.
- Janet markako haur-kotxea salgai egoera onean. Eguzkitakoa eta euritakoa doan. Dei egin 79 91 77 tfnora.
- 4 urteko 10 behi saltzen ditut. Ernai daude. Mendikoak. Amutxastegi Zaharra baserria. Basalgo auzoa. Bergara
- Vespa-200 motorra salgai. Deitu 79 24 66 tfnora. Aitor
- F-301 NIKON argazki-kamera salgai. 50 m m, 70-150 mm, 28-105 mm. Tfnoa: 796495
- Primeran dabilen R-12 txuria salgai. 9 urtekoa. BU-F. 125.000 km. 200.000 pta. Kike. Tfnoa: (945)24 96 01. Goizez.

DENETARIK

- Botatzeko duzun ofizina mahal hori gustora jasoko nuke zure etxera joanda. Dei 79 21 35 tfnora.

ARRASATEN HILDAKOAK

Santiago Carmona Sierra
Otsailaren 10ean. 88 urte

Santiago Umerez Agirre
Otsailaren 12an. 77 urte

Vicenta Mandaluniz Arrien
Otsailaren 13an. 89 urte

Feliciana Gerenabarrena Larrinaga
Otsailaren 13an. 90 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate pasealekua 3 bis, etxabeen.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 84

Famauen ahotik

JOXEPA ARREGI; Mondraueko preso historiko baten bizimorue (II)



Hirurogeitamazazpizena etxera

Bai hirurogeitamazazpiko indultuekin etorri zan, sukalde mueblerixie ipini auen eta ondo ebitzen. Baiñe, egun baten Rotondan lagunekin auela, jente estafue somau auen iguruen eta furgonetara oiezela harrapau zittuen. Orduentxe izan zan, Naparruko bixek frontieran harrapau eta ezkutau zittuena eta berak obsesino hori dauko. Orduen ez ziela bera deteniruten juen, raptetan juen ziela, eta txakurrei eskerrak bizi dala. Txakurrek frente eifutuzien eta batek tirue emuntzen, orduen zaratiaz jentiek balkoira urten eta horrek salbau auela esaten dau. Xei hillebete eif zittuen barruen eta gero lanien jarreittu auen, barriro ihex eittie tokau jakon arte. Harek idealak beriek dittu eta ezin leixo kendu ez ioi eta ez gero.

Azkenengo detentziñue

Azken aldixen Hernanin harrapau zittuen. Beste bixek hildde eta bera etzan hil bañe bueno...jota txikittute itxi auien. Hamargarren egunien juen gitzen eta bixittara urten auenien, hornei ebatute be ezin auen egon. Kofietuek esaten eutzen: Jesus Mari hemen amahemen ama, eta berak, "ai ama, ai ama,

bizi naz baiñe estakitt hoba zer izango zan!"

Oindiokan be egundoko zikatrizek dauko. Honeik hazazkalok, halaxen berna bixetan sartute.

Kataiekin lotu hankak eta eskuek eta kakaz betetako baiñeran sartzen auien. Ha aguantetako ebatu eta sartzen zittuen hazazkalok. Sorbaldako tendoiak pe esfuerzuaz gaizkittute eta ondo osatu barik dauko.

Madrillera juiziora

Almerian eifñ dittu bi urte eta oiñ Ceutan dau, baiñe juiziuue aukela eta Madrillera ekarri auen. Patixuen jaleue egon zan orduen eta guriorri heldu eta zeldara. Eguneru goixien eta gabien "gases lacrimógenos" sartzen eutzien ate azpitik. Abogauek emon auen parte juiziorako preparentan juen zanien. Asfisiaute suizidetako preparaute auela. Orduen esan euzten: "Beti esan izen dot eitten duztien guztiekin be ez nauela doblegauko. Sekule ez duztezu entzun suizidetako gogoik euki dotenik, baiñe oingotxien ezin nauen ba gehixen aguentau".

Lagundu ez, baiñe jakin dana

Berak euren dauen bizimoru dandan-dana kontau izen duzt niri. Nik lagundu ez baiñe nundik nora dabillen jakin dana. Bixok eruen dau dana barruen, oiñ be bai. Sarritten esan izen dutzet: "Baiñe seme ez dok ikusten, zer eifñ bihe duztien baiñe! eta berak "Baiñe ama zer gurozu eittie zer, hor kartzelatan duazenak ustelketan itxiko dittut, ez, nire bizimorue ezta hori!"

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Gizon bat eguneru eguneru pasatzen ei zan frontierako aduanatik bizkarrian zaku haundi bat zebala.

— Zer daroiazu hor? — aduaneruak.

— Txarrijana.

Hola eguneru. Aduanerui errezelu txarrak hartzen hasitta ei zeuan hainbeste txarrijan karriau biharra-kin eta egun baten...

— Zer daroiazu hor?

— Txarrijana.

— Aber, zabaldu.

Zabaltzen dau eta erlojuak, kasetak, joiak...

— Txarrijana, e... — Aduanerurek barrez barrez.

— A, nik bota eitten dotset, jaten ezpadabe allakuidaos.

■■■■■■■

Galiziatik etorritako bat anai erek einddako txabola baten bizi ei zien Eibarko Matxarixan. Behin anai batek esan ei zotsan bestiai:

— Konturatu haiz hemen inguruan zelako bedarra hazten dan. Hi, ahuntza erosi bihar gendukek, hola esnetan ez gendukek gastuik izango ta.

— Horraitio eztok hori benetan esango.

— Zer ba?

— Hik esaten dittuk gauzak. Geu ezin gaittuk kabidu txabolatxo hon-tan eta ahuntza nun sartzeko asmua daukak pa?

— Geure kuartuan.

— Kuartuan? zikinkerixa gehixegi ezteritzok?

— Bai zera, eztok hainbesterako. Ahuntzak danera eitten dittuk eta laster ohittuko litzakek.

Juan Martin Elexpuru

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



Argazki hau atera zenean, 1933an gutxi gorabehera, batzokia gaurko Banco Guipuzcoano dagoen lekuan zegoen. Orduan, hala ere, Gurearaino heltzen omen zen. Lorategia eta ortua zeukan, bolatoki eta guzti, baita Gureako pilotalekua ere; lehen solairuan taberna eta bulegoak zeuden eta goian emakumeentzako tokia. Jende asko ibiltzen zen bertan, argazkiko gazteak bezala, eta

denetik egiten zuten: pilotan edo futboleant, abesbatzan edota Santa Agedako koruetan kantatu, denetik. Garizuma egun batez, antzerki obra bat antzeztu zuten ospitale zaharreko eskolan eta gero argazki hau atera. Gehienak hilda egon arren, badira batzuk oraindik bizi direnak.

Zutik, ezkerretik eskuinera, Otxoa, Paulo Galdos, Xabin Arrieta, Pedro Murgoitio, Lasagabaster, Juan P. Azkoaga, Diego Artxubi, Esteban Etxebarria, Armengou, Alegria,

Joxe Amozarrain, Bixente Barrutiabengoa eta Julio Galarta, gaur egun pintore famatua. Balauniko, ezkerretik hasita, Julian Galdos, Xabin Maiztegi, Eugenio Baños, Joxe Mari Lasagabaster eta Benito Etxebarria, Mondrak izan duen atezainik onenetakoa. Konturatuko zinetenez, ez dugu jakiterik izan argazkiko emakumeen izenik, gure iturriek ez bait zekizkiten. Zuk irakurle, baldin badakizkizu, eskertuko dizugu jakin arazten badizkiguzu.

PUB HAIZEA

arrasate

Erdiko kale. 79 19 37

LEA

Ferrerias. 79 87 62

Hitz gezidunak

Puntu kardinal Makinaz idazteko teknika	Kolpearen onomatopoi Kaakoa, burua	Gauero ohi dugu Toka, nuke	Ehierzain (errep.) Nahi	Afaria egia Ez eme	Ipar. gazta Bizk. Bizk. galderak
Ogi			Burdinazko ziri (errep.) Fruitu tropikal		
Te ordua			Zero	Behar	
			Bilodun	Ahitu	
Nominatibo pluralaren marka Xerfo	Bizk. Giza-gaixoa Gizonak				
			Adiskide Borosa		Oinaze
Errozkariak Dira Ortzea		Ez hotz Atzeko jokalarik		Amerizioa Umedunak	
			Irakiten du Galdegaiak		
Lehenen eta bigarren	Agor Babesa			Tulioa Idazki	Nitrogenoa Kendu (infin.)
		Doinuak Naukate			Edade
Krudel			Hamar	Suari darioa Grina gaitzoak	
Emakume izena		50 Infusio	Pazientziaren irudia Nazkak	Neodimioa Alfabetatze Bukalduntze Koordinatzailea	
Heriotza oinaztegabea Bestela					Bat Gizon izena
Atzikia Selenioa		Irdioa Daukan	Beiki Ergatibo pluralaren marka		Zakurra
	500 Urtea	Ipar. den bitartean (errep.) Gorotza		Har ezak Musika nota	
Nauk Baima beroak			Sail Iodoa		
			Izu		

Soluzioak

V	R	V	S	I	-	N	V	N	O	V	S
H	O	T	V	-	M	V	M	O	V	N	
O	L	O	N	E	O	O	O	E	S		
I	M	I	E	R	I	B	I	E	I	S	O
N	V	E	Z	I	N	V	R	E	I	S	O
I	V	I	S	V	N	V	L	I	E		
O	N	H	O	I	T	I	V	R	E		
V	E	M	X	R	E	N	N	V			
-	M	V	I	N	E	Z	V	B	V		
N	I	V	I	O	Z	I	N	V			
I	N	V	R	I	O	V	O	R	R	Z	
K	V	O	R	E	B	V	R	O			
-	N	O	D	V	T	E	I	V	I	I	
V	I	O	V	L	I	O	M	V			
N	V	T	O	N	V	I	S	O	B		
Z	I	V	R	O	O	I	R	V	O		
V	I	A	V	R	O	N	V	M	E	K	
O	V	E	T	Z	H	I					

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin

**ARRASATE
PRESS**
77 05 65

“PAL”
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Urbarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atek
Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfnoa: 79 01 92
ARRASATE

Bertso-paperak

Boronat

Hara hor non datorren
entrenadorea
honek entrenatzen du
Bilboko taldea
Kendall maitagarria
ez zara hobe
higatik da Atleti
galtzaile trebea

Kendall

Orain ere zabilza
hizketa batean
gutaz gaizki esaka
ari da kalean
propaganda banatzen
jendetza artean
hauteskundeak dita
politikaldean

Boronat

Egunon esaten da
hona etortzean
ez dirudi lagunak
ga'la elkartzean
zagoz jakinean
Ardantzaren itxura
duk Pene Ubean

Kendall

Atleti dago orain
sasoi onean
Ardantza dago eta
guztion atzean
diru asko bait dago
haren karterean
nahiz ta hala ez izan
ze pena! nerean

Boronat

Zuek diruz bakarrik
guri bentajatan
jokatzean ezin da
taktika aldatu
hau ezin da diruaz
inoiz ere lortu
hau lortzeko behar da
asko entrenatu

Kendall

Elkarrizketa hontan
Zu desafiatu
zuk hala nahi baduzu
beharko onartu
eta era honetan
futbola osatu
bitatik bat behar du
ondo nagusitu

Boronat

Hori proposatzea
nahi nuke nik baita
hortaz proposamena
dago onartuta
ugari entrenatu
gu onak gara ta
bestela laster dugu
txapela jantzita

Kendall

Nik askoz nahiago dut
Bizkaian jokatu
baina horretarako
zu ados agertu
San Mamesek irten du
Atotxa gaintu
eta era horretan
ikusleak gehitu

Boronat

Neri ez zait inporta
Bilbon jokatzea
etxean nahiz kanpoan
geure da kopia
hilan hemeretzia
egun egokia
entrenatzeko ere
behar den astia

Kendall

Partidua jokatu
dugula jadanik
eta ez degu sartu
goltxo bat besterik
ez dizuegu eman
batere ostikorik
Loinezek bai ordea
Txirri atzetik

Boronat

Hara oin non datorren
zenbait aitzakitan
bost eta bat galduta
ez nago dudatan
azkar eta aguro
joan hemendikan
propaganda gutxigo
hurrengo batetan.

Maite Retolaza

Arrasate-89 Lehiaketaren
irabazlea

Onduline

TXOMIN HERIZ

URALITA

eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,
ARRASATE

■ **Euskadiko Sei Orduak:** DVkoei badakitela gauzak ondo antolazten onartu behar zaie, *Euskadiko Sei Orduak* bai, behintzat. Ikuskitzuna den aldetik, denetik aurkituko du bertan dagoenak edo teleikusleak: txirrindulariak, korrikalariak, abeslariak, bertsolariak, Perurenaren altxaldiak...dena ondo tajututako egitarauan.

Ez naiz inoiz bertan izan. Beste urte batzuetan telebistan ikusi ahal izan dut, eta gustora gainera. Aurten ez dut horren aukerarik izan, tartean TVE eta ETBren arteko hika-mikak izan bait ziren. Madrildarrek indar posturatik baratzainaren txakurarena egin dute aurten, ez jan eta, ez jaten utzi, alegia. Gonzalez, Perurena eta beste askoren saioak ez genituen zuzunean ikusteko ditxarrik izan.

Irratiz entzuteko parada bai, ostera, eta oso ondo esan behar. Euskadi Irratiak eskaini zuen erretransmisioa bikaina izan zen. Joxe Mari Apaolaza, Iñaki Elortza, Harritxu Iribar eta Iñigo Aiestaranek goreneko markak merezi dituzte, euren laguntzaile guztiekin. Hori duk, hori, irratia bizia eta entretenigarria egitea!

■ **Bai zera!** Ez dakit gogaratuko zareten. Iaz Amatifioren *Laino guztien azpitik* saioaren barruan egoten zen Arantxa Urretabizkaiak idatzitako laupabost minutuko antzerkitxoa, hamasei bat urteko mutil gazte baten gurasoen gorabeherak kontatuz. Aipatu programan, gero gonbidatuaren artean mintzagai izango ziren egoerak planteatzen ziren: errejimena, telebista gehiegi ikustea, etxeko lanak...Amatifioren programa desagertu zen, baina *Bai zera* laburrak oraindik pantailan segitzen du, igande iluntzetan, asteburuko Gaur Egun albiste saioaren ostean.

Ez dakit ETBk inoiz bertako gidoilari eta aktore/aktoresei lana ematean pentsatu duen, baina horrelako espazio dramatikoak bultzatu beharko lituzkeela iruditzen zait. *Bai zera* laburregia da. Deskuidatuz gero, konturatu orduko amaituta dago. Akaso hor du ETBk oraindik gaintitu gabeko asignatura.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Kirolak:** Ostiralean, 23,55etan *Super Match* saioa (non boxeoa, futbol edo pilota partiduak ematen diren). Larunbatean, 15,20etan NBako saskibaloi partidua; eta igandean, arratsaldeko 18,10etan ACB ligako saskibaloi neurketa.

■ **Doll andere gurea:** Frank Borzagek zuzendutako filmea, ostiralean, gaueko 9etan. Antzesleak Ginger Rogers, David Niven, Burgess Meredith. John Payne, Iraultza gudeatez geroztik nahiko ahulduta geratzen da, eta Virginia estatua uztea erabakitzen du Filadelfiara joateko. Berarekin eramango ditu emaztea eta Dolly, bere alaba.

■ **Aho biko ezpata:** Igandean, 3,30etan. Antzesleak Margot Kidder, Warren Oates eta Peter Fonda, Thomas McGuaneren zuzendaritzapean. Tom Skelton Key Westen bizi da, eta bere bizitzako helburu handienetarikoa arrantza gidaria izatea da, gizonak arrain mordoak dagoen lekuetara eramateko. Dena den, interes asko daude negozio horretan, eta...

bideoak



Lurraren inbasioa

Orain dela 350 miloi urte inguru, eboluzioa bere mailarik garrantzitsuenera iritsi zen, arrainak arrastaka uretatik lurrera irten eta anfibio bihurtu zirenean lehorrean bizirik iraun ahal izateko, bi trebetasun berezi garatu behar izan zituzten: lur gainean ibiltzea eta airea amastea.

Guzti honen berri Bizia lurrean seriearen 6. kapitulu honetan.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).